

55

500 pezeta / 20 libera • 2001eko OTSAILA euskal heziketarako aldizkaria


hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: LOLI ANAUT •
NOLAKO IKASLEA HALAKO LANA
• BERRIAK: JARDUNALDIAK... •
TEORIAK: OVIDE-JEAN DECROLY

GATA

Talentu aparteko
haurrak



gaia

TALENTU APARTEKO HAURRAK

Zer gertatzen da talentu aparteko haurrekin?



elkarrizketa

LOLI ANAUT

Gaur egun irakaskuntzan oso ezaguna den Anara Berri proiektuaren sortzailea izan zen.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

TALENTU APARTEKO HAURRAK

Hautzat ere heziketa berezia

Garatu Elkartea, Carmen Maganto...

22 elkarrizketa

LOLI ANAUT

30 esperientzia

Nolako ikaslea halako lana

Patxi Sanjuán

33 berriak

Nanai haur aldizkaria, Txirulaz KD, "Takolo, Pirritx eta Porrotx" Nikaraguara, pedagogia jardunaldiak...

38 argitalpenak

Gustura idatziz, Tigre birtuala, Irakurriko al didazu ipuin bat?, Potoloa naiz, eta zer? Memoria del camino dal destierro...

39 teoriak

Ovide-Jean Decroly

Maria Ines Gabari

Argitaratzailea: **XANGORIN** Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia. 20160 IASARIE-ORTA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.15.45 Fax: 943/ 36.10.48. Posta Elektronikoa: hikhasi@antza.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airnha Azpiroz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola, Mikel Estonka, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Billbatua, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Anaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAM Grafik maketazio, aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Loli Anaut (kor Kotx) .

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001/I/24. Kopurua: 3.500 ale
hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.
hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



Haurrak, pailazoak eta pertsonaia ezagunak protagonista.



22 euskal jolas

Zatoz jolastera!



Eskaintza
berezia!

Norbanako harpidedunentzat
~~7.500 pta.~~ 1.600 pta.
Ikastetxeentzat, 10 bideotik gora
eskatuz gero, bakoitza 2.000 pta.

editoriala

otsaila

Zabaltzen: euskalgintzaren zutabeari eraso



Euskaldunok eta euskara ikerketapean jarraitzen dugu. Baita euskara hitzetik eratortzen den guztia, esaterako: euskal irakaskuntza

Eta orain ZABALTZEN. Ohiko estrategia zital bera: joan, sartu, bazterak nahasi eta gainerakoa, berriagentzien esku. Ofizialki 19 fakturen bila joan ziren eta, bide batez, jada erregistroan edozeinen esku zeuden 158 agiri eraman zituzten.

Errepara diezaiogun gure lanabesei, eskuartean darabilkigun material didaktikoari. Egun, ia normaltzat jotzen dugu horiek euskaraz izatea edo euskaraz aurkitu ahal izatea, bederen. Falta zaizkigunean, ZABALTZENera telefono deia eginez konpontzen dugu gehienetan.

Ez da urte asko euskarazko testu liburuak aurkitzea ia ezinezkoa zela. Eta izanda ere auskalo non eskura zitezkeen. ELKARrek 28 urte daramazki lanean. Bere lanari esker, irakasleek eta ikasleek erdarazko liburuak

euskaratzen eta ahal genuen materiala sortzen igarotzen genuen denbora aurreratu dugu beste zeregin batzuetarako. ELKARrek sortutako ZABALTZEN banaketa sareari esker gero eta arruntagoa eta erosoagoa bilakatu da behar duguna euskaraz eskuratzea. Telefono deia egitea bezain erraza.

Baina ZABALTZEN banatzaile etxea baino gehiago da. Askotan aipatzen dugu Euskal Hezkuntzaren aupada garrantzitsua. Eta aurrerapauso horien artean dago, inoiz aipatzen ez bada ere, ZABALTZENek egin duen lana; euskarazko material didaktikoa ekoiztea eta banaketa ziurtatzea da ZABALTZENek euskal irakaskuntzari egindako ekarpen nagusia.

Gainera, Euskal Herrian sortutako proiektu anitzek, tartean hik hasi

berak, ZABALTZENen eta ELKARLANEAnen magalean aurkitu dute hasierako une gogorretan babeslekua, eta hein handi batean itzal horri esker atera dira aurrera.

Ondorioz, eraso hori, Euskal Hezkuntzaren azpiegituraren oinarri garrantzitsuenetako bati egindako eraso da. Euskal Hezkuntza Erkidegoa osatzen dugun guztioi eraso egin digute!

Bakoitzak jorra ditzala bere bideak, horixe da guk guretzat nahi duguna, eta delitu susmorik badute jardun dezatela sortu dituzten legeak agintzen dieten gisa: instrukzioak arauzko bideetatik eginez eta errugabetasun-presuntzioa errespetatuz. Epaiaketaren ebazpenaren aurretik jasotzen ari gara zigorrak. Non dago euskaldunon defendatzeko eskubidea?

kronika

Udalbiltzak euskal hezkuntza sistema propioaren aldeko ekimenak jarri ditu abian.

Espainiako Gobernuak abenduan onartutako hezkuntza erreformaren haritik, Madrildik eta Paristik egiten diren erasoak salatu dituzte.

Horren aurrean eta horri erantzun asmoz, batetik Euskal Herriko udaletxeetan mozio bat aurkeztuko dute, eta bestetik euskal curriculuma lantzen hasiko dira. Mozioan hezkuntza sistema propio bat edukitzeko dugun eskubidea aldarrikatzen da, eta ezin direla Madrildik edo Paristik datozen dekretuak onartu. Beraz, mozioa onartzen duten udalek euskal hezkuntza propioaren aldeko urratsak emateko konpromisoa hartuko dute.

Euskal curriculuma lantzeari dagokionez, Euskal Herriko ikastetxeetan ematen den curriculuma eta erabiltzen diren materialak aztertuko ditu

Udalbiltzaren Aldeko Hautetsien Irakaskuntza taldeak. Ondoren azterketa bat egingo dute eta hezkuntzako hainbat eragilerekin bateratu.



Nafarroako bide seinale elebidunak ez dira kenduko momentuz

Nafarroako Gobernuak abian jarri du euskararen erabilera arautzeko onartu den Foru Dekreturen Ekintza Plana. Bertan hiru eremu zehaztendira: irudi korporatiboa eta instituzionala, hiritarrentzako zerbitzuak eta lanpostuetarako sarbidea. Lehenengo aldaketak bide seinaleetan egingo ditu. Hasieran seinale elebidun guztiak berehala kenduko zituela aditzera eman bazuen ere, azken adierazpenen arabera, aldaketak pixkanaka egingo dira. Dagoeneko jarrita dauden seinaleak bere horretan utziko dira, eta hemendik aurrera jartzen direnei aplikatuko zaie dekretu berria. Hau da, eremu mistoan, orain ez bezala, gaztelania hutsezko bide seinaleak ezarriko dira.

Foru Dekretuak eta neurri horrek

erabateko gaitsezpena jaso dute Nafarroako gizarteko sektore sozial, politiko eta kulturaletatik. Eremu Euskalduneko 18 herritako alkateek eta Mallerrekako Mankomunitateak “erabateko desadostasuna” erakutsi dute, eta euskararen normalizaziorako atzerapauso nabarmena dela azaldu dute. Oinarriak taldeak “euskararen kontrako gurutzadan azken urratsalarria” izan dela adierazi du, eta “Gobernuaren konfrontaziorako estrategia honi gizartearen ahotsa zentzuzkoa kontrajarri behar zaiola”. Oinarriak plataformak iaz aurkezturiko proposamena baliagarria dela aldarrikatu du eta euskararen ofizialtasuna dela konponbidea. Kontseiluak, bere aldetik, egoera honen aurrean neurriak hartuko dituela jakitera eman du. Horrela, txosten bat idatzi eta bidaliko du Europako Parlamentura eta UNESCOra Sanz Nafarroan egiten ari denaren berri izan dezaten.

Earen ustez UPNren jarrera eta jokaera euskararen aurkako “eritasun obsesiboan” oinarritzen da. IUren esanetan “UPNk euskararen normalizazioaren aurrean duen frustrazioaren seinale da”. ELA, LAB, EILAS, CGT, ESK eta EHNEk Gobernuak hartutako neurriak jurdikikoki aztertuko dituzte. Ez da ahaztu behar dekretu honen eragina ez dena administraziora mugatzen, gizarte osoara baizik.

Eskoletan erlijio sinismenak erakustearen alde -
koa naiz, baina aldi berean gogo biziz defenda -
tzen dut irakaskuntzaren laikotasuna

Alain Touraine



Seaska eta Hezkuntza Ministeritzaren arteko negoziazioak ez dira bukatu

Oraindik ere luze iraungo dute Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Ministerioaren arteko negoziaketek. Azken bileren ostean, gauzak gehiago aztertzea hitzartu zuten.

Negoiazio hauetan Seaskaren eta euskal irakaskuntzaren geroa eztabaidatzen ari dira, betiere ikastolak publiko bihurtze aldera. Besteak beste puntu hauek dira eztabaidagai: ikastegi- kudeaketa, Seaskaren lekua, irakasle- lebidunen trebakuntza, frantsesaren lekua, metodo pedagogikoa eta erakuntzak. Estatuaren proposamenaren arabera, ikastolak Hezkuntza Ministeri-

tzaren ardurapean geldituko lirateke, eta Seaska "zenbait pedagogia eta eskolaz kanpoko aktibitateetako laguntzaile" gisa geldituko litzateke. Bestalde, eraikuntzen premia ere gogorarazi zien Seaskak Hezkuntza Ministeritzako arduradunei azken bileran.

Nahiz eta gauzak oraindik argitzeke eta erabakitzeke egon, giro lasaia eta lanerako modukoa somatu zuten Seaskako arduradunek azken bileran.

Bestalde Bai Euskarari hitzarmeneko konpromisoak hartzen ari dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 213 sinatzaileak. Euskararen presentzia eta erabilera handitzeko helburu estrategikoak finkatu ondoren, orain horiek erdiesteko urratsak definituko dituzte. Bai Euskarari hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko kideak sinatzaile guztiekin bilduko dira apirila bitartean. Sinatzaile bakoitzak betetzeko moduan izango den konpromisoak hartuko ditu. 213 sinatzaileak 10 sektoretan banatu dituzte eta horietako bakoitzaren beharren arabera proposamenak egin ditu aipatu batzordeak. Ondoren, sinatzaile bakoitzaren egoerari egokitutako proposamenak ere egin dituzte. Jarraipen Batzordetik proposamenen %35 betetzea eskatuko zaie bost urteko epean. Apirilaren hasieran egingo den batzar nagusian emango dute sinatzaile guztiak hartutako en- gaimenduen berri.

Ikastolen Elkartearen Eleanitz Proiektua Europako hamar herrialdeetan erabiltzen dute, eta bertako 17 aditu hona etorri dira atzerriko hizkuntzen didaktikari buruzko mintegian parte hartzera.

Eleanitz programa duela hamar urte sortu zuen Ikastolen Elkartek. Gaur egun Euskal Herriko 58 ikastoletako 15.000 ikasle daude proiektu horren barruan. Horrez gain, Alemania, Austria, Danimarka, Eslovakia, Espainia, Finlandia, Holanda, Hungaria, Irlanda eta Italiako 36 ikastetxetan erabiltzen dute. Herrialde horietan ingelesa, gaztelania, nederlandera, italiera eta irlandera irakasteko erabiltzen dute Eleanitz Proiektua.

Bertako adituak trebatzeko antolatu du aipatu mintegia Ikastolen Elkartek. Materialak ezagutzeaz gain, hizkuntza ezberdinetan nola erabil dezaketen ikusteko aukera izan dute eta kultur testuinguru ezberdinetarako era baliagarria dela frogatu dute. Horrelako bilerak oso garrantzitsuak direla adierazi dute mintegira hurbildu diren aditu eta irakasleek, bakoitzaren esperientzia kulturala trukatzeko aukera ematen baitu. Horrez gain, programa honetako materiala berritzailea, irekia eta malgua dela azpimarratu dute, eta horrek aukera didaktiko handia ematen duela. Izan ere, edozein momentutan zerbait alda dakioken CD-ROMek irekitasuna ematen dute, eta gela barruan egin ahal diren ekimen didaktikoen aukera zabalago ere bai.

GATA

Talentu aparteko haurrak
Hautentzat ere heziketa berezia





Talentu aparteko haurrak

Gaur egungo hezkuntza behar bereziak dituzten hurrei laguntza emateko prestatua dagoela esan daiteke. Haur itsuek, gorrek, hitz-motelek, adimen urrikoek, autistek eta abarrek laguntza gelak eta programa bereziak dituzte euren garapenean aurrera egiteko. Baina zer gertatzen da talentu aparteko haurrekin? Beren kideak baino azkarragoak diren haurrek ere behar bereziak dituzte. Horiei erantzuten al zaie?

Behar bereziak dituzten haurren artean talentu apartekoak dira gutxien aintzat hartu direnak orain arte, eta ondorioz, beraiei egokitutako programa bereziak eta laguntzak oso bakanak dira. Hainbat gabezia dituzten haurren beharrei gaur egun erantzuten zaiela esan daiteke, hau da, itsuei, gorrei, mutuei, hitz-motelei, autistei edota adimen urriko neska-mutuei zuzendutako programa bereziak eta laguntza gelak antolatuta daude. Haur horiek ezagutzen ditugu. Haatik, talentu aparteko haurrak ez ditugu ezagutzen, ez dakigu zein diren besteak baino adimentsuagoak diren haurrak.

Errezelo eta beldur handia dago haur horiei buruz hitz egiterakoan. Talentu aparteko etiketa jarriz gero min egingo zaien beldurra dago. Ez dago beldurrik ezintasunak dituzten haurrak etiketatzeko eta gela bereziak prestatzeko, baina haur bat talentu apartekoa dela esaten bada, min egingo zaiola uste da. Iritzi hori du Carmen Maganto EHUko Psikologia irakasleak. Berak dioenez *"ez da minik egiten egia ezagutuz gero. Min egin diezaiekegu haur horiek beti talentu aparteko errendimendua izatea nahi badugu eta beti eredu bezala jokatzea nahi badugu. Izan ere, besteek baino adimen altuagoa edo goiztiarragoa eduki arren, eskubide osoa dute nahi duten errendimendua izateko"*. Carmen Magantok argi uzten du *"haur horiek arazo bezala ikusiko ez bagenitu eta gauza normal bezala hartuko bagenu, beldur hori kendu egingo litzaiguke"*.

Talentu aparteko haurrak eta haur adimentsuak

Talentu aparteko haurrak, haur adimentsuak, azkarra, argia... kontzeptu ugari erabiltzen dira, eta sarritan gauza bera esan nahi dutela irudi-

tzen zaigu. Baina ez da horrela; alde batetik talentu aparteko haurrak daude, eta bestetik haur adimentsuak edo azkarrak.

Talentu aparteko haurra abilezia kognitibo ia guztietan gutxienez 130eko puntuaziotik gora duena da. Horietan guztietan desbiazio tipikotik bi puntu baino gehiago igotzen bada, hots, bere adineko haurren batez bestekotik gora baldin badago, talentu aparteko haurra dela esan daiteke. Talentu aparteko hori oso altua bada, hau da, adimen gaitasunak 160ko puntuazioa gainditzen badu, jeineun maila duela esaten da. Populazioaren %0,01 baino gehiago ez dira jeinuak. Beraz, talentu aparteko haurren artean mailak daude, eta oso maila altua dutenak jeinuak direla esaten da.

Bigarrenik adimentsuak edo azkarrak daudela aipatu dugu. Hauek zenbait arlotan talentu bereziak dituztenak dira, baina ez arlo guztietan. Esaterako, ahozko komunikazioan, matematiketan, musikan, kirolean, arlo artistikoan... Arlo horietako batean edo batzuetan nabarmentzen dira haur adimentsuak, baina ez guztietan. Badaude matematiketan oso azkarrak diren haurrak, baina idazteko zailtasunak dituztenak.

Zaila da haur bat talentu apartekoa den edo ez jakitea, ez dago adostasunik ez tekniarik hori definitzeko. Gaur egun ez dago talentu aparteko haurrak antzemateko testik, eta ohiko adimen probek baliatu beharra dago. Horrek zailtasun handiak ekartzen ditu ebaluatzeke garaian.

Bestalde, ez da ahaztu behar adimenaren garapenak gora-behera handiak izaten dituela. Litekeena da haur batek 3 urterekin ongi irakurtzea inork irakatsi gabe, oso zuzen hitz egitea, hiztegi benetan aberatsa izatea, kalkulu matematikoak egitea eta abar. Baina oso txikitzen duen garapen



goiztiar hori gerora galtzea eta besteen mailan gelditzea suerta liteke.

Gauzak horrela, ia zientifiko guztiak ados daude haur bat talentu apartekoa dela esateko 12 urtera arte itxarotearekin. Adin inguru horretan bere ikaskideekin konparatuz abilitate kognitiboen eta adimenaren batez bestekoa nabarmen gainditzen badu, ikasle hori zalantzarik gabe talentu apartekoa dela baieztatu daiteke. 12 urte baino lehenago ezin da hori ziurtatu, adimenaren garapena oso malgua delako. Altuerarekin gertatzen dena pasa litekeela dio Magantok. *"7-8 urterekin oso altua datorrela iruditzen zaigu askotan, eta gero gelditu egiten da. Edo alderantzizkoa ere gertatzen da; ez dela asko hazten iruditzen zaigu, eta gero, bat-batean izugarri hazten da. Normalean pubertaroa bukatzen denean finkatzen da altuera, eta adimenarekin ere gauza bera gertatzen da. 12 urte ingururekin bukatzen da adimenaren sortzea eta egituraketa".*

Dena dela, ez da 12 urtera arte itxaron behar neurriak hartzeko edo laguntza emateko. Garrantzitsua da diagnostiko goiztiarra egitea haur horiek programa bereziak izan ditzaten azkarrak diren arlo horietan.

Diagnostikoarekin bi arlo ezagutzen dira: bata haurraren adimen maila apartekoa den ala ez jakiteko, eta bestea haurraren nortasuna eta bere moldaketa familian eta gizartean. Bi arloek dute eragina eta biak oso kon-tuan hartzekoak dira.

Ez dago talentu aparteko haurren profilik, oso ezberdinak izan daitezke, faktore askoren baitan baitaude.

Adimena eta nortasuna desorekan

"Talentu aparteko haurrez hitz egiten dugunean adimena irudikatzen dugu" dio Magantok "eta hori ez da guztiz zuzena. Talentu aparteko ez hitz egiten dugunean desoreka batez ari gara, beren garapen kronologikoaren (emozionala, soziala...) eta adimenaren garapenaren arteko

desorekaz. Hain desorekatuta dauzkatena alderdi bi horiek harmonizatzen lagundu behar zaie haur horiei. Horretarako da ona, hain zuzen ere, diagnostiko goiztiarra egitea, ez adimena garatzeko, baizik eta bere nortasuna ez mintzeko eta hobeto integratzeko".

Izan ere, bi alderdi horien arteko desorekak arazo emozional asko sorrarazten dizkie haur horiei, emozionalki jasan ezin dituzten gauzak intelektualki ulertzen baitituzte. Justizia, moralak, etika, etorkizuna, mundua eta beste hainbat gauzari buruzko galderak egiten dituzte, ulermen globalagoa egiten dute eta ondorioz beldur eta antsietate handia pasatzen dute. Arrazonamenduak egiteko gaitasuna badute, baina gero emozionalki ez dute heldutasunik buruarekin ulertzen duten hori jasateko.

Zer dakar horrek? Batzuetan depresioak, helduenganako konfiantza eza, sufrimendu psikiko asko... *"Imajinatu etorkizunean gertatuko dena ikusten dugula eta horrek larritasuna sortzen digula. Ez ginatete hori jasateko gai izango, zer gertatuko litzatekeen jakingo genuelako eta ezingo genuelako ekidin. Bada, haur horiei gauza bera gertatzen zaie" azaltzen digu Magantok. "Adibidez, adimen urriko lagun bat ikusten dutenean "ezingo du inoiz besteak bezalako izan" pentsatzen dute. Helduok ere esaten dugu hori, baina beste perspektiba batetik. Baina haur batentzat oso gogorra da lagun bat inoiz ez dela bera bezalako izango onartzea. Horregatik, emozionalki asko sufritzen dute".*

Hori ekiditeko bide bat badago: diren bezala onartzea eta entzutea. Horrez gain, zenbaitzuek tratamendu edo terapia bat beharko dute. Oro har, guztiek urritasunak dituzten haurrek dauzkaten balia bideak eduki beharko lituzkete horrelako arazoei aurre egiteko: laguntza gelak interesatzen zaizkien eta kezkek sorrarazten dizkieten gaiak lantzeko eta horiei buruz hitz egiteko.

Laguntzak oso urriak dira

Zaila da talentu aparteko haurrentzako laguntza aurkitzea. Ikastetxetan ez dago horretara bideratutako programa berezirik, ez eta materialik ere. Eskola bakoitzean moldaketa kurrikular indibiduala egiten dute haur bakoitzak behar duela uste dutenaren arabera. *"Talentu aparteko haurra besteen erritmoan ongi ibiliko dela pentsatzen da askotan, eta ondorioz, besteak bezala tratatzen da, ezer berezirik egin gabe. Nire ustez ez dugu pentsatu behar berezia den haur bat berezia ez denik. Kasu honetan, ez du esan nahi zerbait liluragarria espero behar dugunik haur horrengandik, baizik eta bere adimenak behar duen elikadura eman behar diogula".*

Irakasle Eskoletan ez da gai hau lantzeko prestakuntzarik eskaini gaurdaino. Badaude Heziketa Berezi-ko espezialitateak duten Irakasle Eskolak, baina Heziketa Berezi horretan gehienetan haur itsuak, gorrak, burmuin elbarriak eta adimen urria duten haurrei buruz aritzen dira. Beraz, irakasleen prestakuntzatik hasita nabaritzen da gai honen inguruko hutsunea eta material eskasia.

Psiko-pedagogia Aholkularitza Zentroetatik talentu aparteko haurren beharrei kasu egiten hasten ari dira. Heziketa Behar Bereziak (EBB) dituzten haurrentzako programak prestatzen dituzte zentro horietan. Magantok dioenez, *"hitz-motel, itsu eta gorrekin nahikoa lan izaten dute normalean. Zenbait kasutan diagnostikoak eta bizkortze programak egin izan dituzte, eta lan horiek geroan hobetzea espero da. Psiko-pedagogia zentroetan pertsona bat edo bi jarri beharko lirateke gai hau lantzeko. Horrela, diagnostiko goiztiarra egiteko aukera egongo litzateke eta baita horri jarraipena emateko ere".*

G

GARATU Elkartea

Talentu aparteko haurrak dituzten gurasoak

Garatu talentu aparteko haurrak dituzten gurasoek sortutako elkartea da. Aita eta ama horiek inork baino hobeto dakite zein den haur supergaituen egoera eta legokien hezkuntza egokia izateko dituzten arazoak. Beraien gana jo dugu beren ekimenak eta errebindikazioak ezagutzeko.

Zeratarako sortu zen Garatu Elkartea?

Garai hartan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako guraso talde bat biltzen ginen gure seme-alabekin haurrei euren jakinmina asetuko lizkiekeen ekintzak antolatzeke asmoarekin; gure haurrek, garai hartan 4 eta 6 urte bitarteko haur txikak, unibertsoari buruz, edo gorpuzari, energiari edo bizitzaren zentzuari buruz egiten zizkiguten galderei erantzun nahian, hain zuzen. Beranduago, talde hura egituratu egin behar genuela erabaki genuen, eta handik sortu zen gaur egungo Garatu elkartea. Gure seme-alabek ez zieten galdera horiei ikasgeletan erantzunik aurkitzen, eta gu geuk ere ezin genien haien zergatiei eskatzen zuten sakontasunarekin iharde-tsi. Haurrak, beraien artean, bere interes berdina zutenekin elkartzen zirenean hobeto sentitzen zirela konturatzen ginen gurasoak. Ikasgeletan oso bestelako rola hartzen zutela ere ohartzen ginen: pasiboagoak ziren, lotsatiagoak, antsietate handiagokoak, itxurak egiten zituzten bere gaitasuna ezkutatzeko, edo gelako ekintzak beste haurren antzera edo okerrago egiten saiatzen ziren oharkabe pasatzeko. Gure taldean burutzen genituen ekimenak sarriago an-

tolatzen hasi ginen, eta legearen inguruan zegoen hutsuneaz konturatu ginen, nahiz eta ordurako hezkuntza ministerioak hezkuntza bereziko lege bat onartua izan haur supergaituek zituzten beharrei ere erantzuteko egina, hain zuzen. Elkartearen estatutuetan jaso genituen gure helburuak eta handik aurrera gure indarrak handiena administrazioarekin edukiko genuen harremanean erabili genuen. Gaia zabaltzea nahi genuen, dagoeneko gertatzen ziren egoerak legeztatu, familiei eta profesionali biltzen genuen informazioarekin lagundu, gure seme-alabentzako ekintzak egin ahal izateko dirulaguntzak lortu, bai unibertsitateetan, irakasle eskoletan, hezkuntza profesionaleengan eta gizarte osoan gaia hedatu eta, azkenik, beste elkarte batzuekin ere harremanak bilatu.

Agintariak eta instituzioak beraz ez dira haur horiek hezkuntza behar berezietz jabetzen. Zergatik?

Denbora luzean jokatu izan da hainbat mito, eredu eta aurreiritziekin eta urte askotan zabaldu beharko da gai honi buruzko informazioa eta irakasleriak formakuntza berezian trebatu beharko du hau guztia aldatzeko; haur eta nerabe horiek hezkuntza bereziko ikasleak direla eta beren beharrei egokitutako hezkuntza izateko eskubidea dutela gogoan hartzeko. Hezkuntza sailetatik ondo gaitutako profesionalak badituztela esaten digute. Gure iritziz, formakuntza horren emaitzak ez ditugu oraindik ikusi. Horretarako beharrezkoa da haur supergaituen arlo emozionala, ikasbideak eta, beren prozesu kognitiboak besteenetatik desberdinak direla jakitea. Guk ikusten dugu nola mugitzen diren gure haurrak gai batetik bestera, helduok ere ohartuko ez ginatkeen gauzez nolako sentiberatasuna eta nolako perzeptzio gaitasuna duten.




Nola ikusten ditu gizarteak talen- aparteko haurrak?

Gizarteak, jeneralean, haur supergaituak pertsona argitsu eta apartekoak direneko irudia du. Bada pertsona arraroak, konfliktiboak, eta horrelako seme-alaba bat edukitzea arazo izan daitekeela uste duenik ere. Berez, supergaitua izatea ez luke zertan arazo izan behar. Arazoa, ordea, beraien egoera zuzen jasoa ez egotea da. Ez dira beren ikasteko erritmoak onartzen, ez bere sormena, ez galderei erantzuteko duten era berezia, ezta arau sozialetara eta konbentzionalismoetara moldatzeko duten zailtasuna; hitz batean esateko, ez munduan egoteko eta mundu hori ikusteko duten era berezia. Gizarteak kontuan eduki beharko luke hainbat eta hainbat norbanako bide bazterrean geratzeak dakarren kostu sozialaz, desoreka hori hezkuntza egokiago baten bidez ekiditu ahalko zitekeenean. Gurasoek nahiz eta maiatasun eta pazientzia handiz tratatu gure seme-alabok ikusten dugu funtsezkoa dela dibertsitatean oinarrituko den hezkuntza. Ikasgeletan igarotzen dituzten orduetan haur hauek adimen inhibizioa lantzen dute. Beste edozein haurren gurasoek bezalaxe, guk ere onena nahi dugu gure seme-alebentzat. Guraso guztien antzekoak gara, denok nahi dugu gure haurrek barruan daramaten onena atara dezaten, harmonian bizi daitezen, eta zoriotsuak izan daitezen. Baina hau erdiesteko baldintza batzuk jarri behar dira eta malguagoak izan baldintza horiek eman daitezen. Familientzako honetako guztiak duen kostua areagotu egiten da ulertzen ez gaituenean eta edozeini gure kezka naturaltasunez azaldu ezin diogunean. Guk nahi dugu gizarteak gai honi normaltasunez heltzea, profesionalek gaia benetan lantzea, eta horrela bakarrik desagertuko dira aurreiritziak.

Zer eskatzen diezue irakasleei eta Pat-ei?

Lehendabizi euren lana profesionaltasunez betetzea. Beraiengana jotzen duten familiak eta haurrak profesionaltasunez tratatzea. Bigarrenez, burokrazia hori guztia arinago betetzea, luzeegiak izaten dira orokorrean ebaluazio psikopedagogikoak, egoeraren legeztatzea, eskolako urteak malgua-



goak bihurtzea, ACIak, eskola orduak murriztea hala behar izanez gero, urrutiko hezkuntza sistema, tutoreak, eta abar. Hirugarrenez, hasiera-hasieratik eraginkortasunez jardutea. Hau, berez, ikasle hauentzako egokia eta beharrezkoa izango litzatekeena eskatzea besterik ez da. Hezitzaileei, berriz, eskatzen diegu hezkuntza berezia behar duten haur hauek aintzat hartzea, ezin dute gurasoek erruduntzen eta gaia beste egoera batzuetara desbideratzen jarraitu, D. Golemanen adimen emozionalaren aitzikiarekin gurasoak urruntzen: "uztazu, haurra zoriotsua izatea da garrantzitsua, ez ezazu ezer egin, ez dezala hainbeste irakurri, beste seme-alaba batzuk dituzu, zer esango dute biharko egunean honi besteei baino kasu gehiago egiten badiozue, elkarteak oso arriskutsuak dira, ez zaitezte bertara joan, itxoin egin behar da, behatu, jarraipen bat egin, eta abar.

Elkarrizketa horietatik gurasoak desorientatuak, desengainatuak eta handik onik ezer gutxi aterako dutela pen-

tsatuz ateratzen dira. Orain arteko harremanetan ezer ez egiteko estrategiak gero eta sarriago ikusten ditugu. Ez dugu sikiera haurrak ebaluatzeko ahalegin txikiarik ere ikusi; horretarako hila-beteak, batzuetan urteak ere pasatzen dira, ebaluazio bat burutu, haurra identifikatu eta komeri zaion hezkuntza orientazioa eman arte. Aurretik egindakoaren jarraipena askotan eta askotan eten egiten da. Ematen diren aitzikien artean: "begira, zure seme-alaba etiketa batekin egongo da eta gaizki pasatuko du". Haur horren beste berezitasunak nabarmentzen dituzte eta jartzen dieten etiketa ezaugarri negatiboez jositakoa izaten da. Adimenez supergaitua den ikasleak ere ikasteko arazoak izan ditzake, dislexia, Aspergerren sindromea, edo beste edozer. Talentu apartekoak dira hala ere, eta hau hartu beharko da kontuan ikasle horri behar duen arreta eskaintzeko. Laburrean esateko guk ulertuak izatea nahi dugu, gai honi jaramon egitea. Haurrengatik zerbait egiteko gogoia besterik ez da behar hemen, zeren formakuntza, bibliografia eta hezkuntza material eta programak egin badaude beste herrialde batzuetan egindakoak diren arren. Haiek moldatzea besterik ez da behar, eta ziur gaude denen onerako izango litzatekeela. Ez dugu haur jeniorik sortu nahi, ezta gurasoek seme-alakeekiko sentitzen duten nartzisismoa handitzea, eta gutxiago irakasleriarekin eta hezkuntza zentroekin ditugun harremanak hondatzea,





G A I A

Talentu aparteko haurrak

Hautzat ere hezkuntza berezia



gaur egun, tamalez, gertatzen ari den bezala. Gure haurrak zoriontsuak izan daitezen euren burua garatzeko posibilitatea eduki behar dute, kriterio eta baldintza batzuen pean. Nahi dugu beren autoestima osoa izatea; egiten dutenarekin zoriontsu sentitzeko haur horiek erronkak, babesa eta ulertuak izatea behar dute beste edozein gizakiren antzera. Kontraesan bat da, haur hauekiko bat ACI bat egitera doanean horrelakorik esatea: "Lehenengo, beste guztiena bezalakoa egin behar du, eta gero emango zaio bestea". Hor akats handi bat dago. Beste haurrak bezala jardutea nahi badugu motibazio falta izugarria izango du. Berrito ere diogu haur supergaituen interesguneak ikasgeletako etatik oso urruti egoten direla, baita gaiei heltzeko eta soluziobideak emateko errak ere. Baliteke gurasoren batek hezkuntza interbentziarik nahi ez izatea, horretarako eskubidea du. Baina legeak ezartzen dituen hezkuntza baldintzak eman daitezen nahi dugunok (legeak dioena aski ez den arren) ere horretarako eskubidea dugu. Gure haurrak zoriontsuak ikustea nahi badugu beraientzako izan daitezkeen baldintza onenak eskuratu behar ditugu, eta horren barruan kokatzen da guraso eta irakasleriaren arteko kolaborazioa, berriz ere, komunikazio ahalik eta positiboenean oinarritu behar den elkarlana, alegia.

Zein erantzun jaso duzue orain arte?

Kasu gutxi batzuetan erantzuna oso egokia izan da, eta emaitzak hobereak. Hainbat zentrotan ildo honetatik hasi dira lan egiten eta honetan aitzindariak izatea eskertu nahi diegu, beste batzuek ere beldurra galdu eta hortan has daitezten. Haurrak aguro asko irabazten dute bere autoestimari balortuak eta aintzat hartuak sentitzen badira. Kasu gehienetan, ordea, zenbait ira-

kaslek kontrako eragina dute haurren gain. Ulergarria da, badakigu, egoera berri eta ezezagun baten aurrean segurtasunik eza eta beldurra azaltzea, baina azkenerako haurra jasanezineko egoeran jartzea haren jarrera negatiboan sortaraziz, are gehiago nerabe garaian baldin badago berari, hankasartze izugarria da. Eskolara eramaten ditugu gure haurrak, beraien arlorik onenak garatzeko bidea eskainiko dietelakoan eskoletan, beraiekin koherentziaz jokatuko dutelakoan; guk, gurasoek, gure borondate onenez egiten ari garenekin ere koherente izango delakoan. Baina zenbait kasutan zeharo aurkakoa gertatzen da. PATetik gurasorik gehienak desanimatuta eta nahastuta irtetzen dira, eta gainera elkarrekin aurkakoa aurreiritziarekin. Honek ekartzen du gurasoak ez antolatzea, ez informatzea, ezta beren seme-alabaren eskubidea dena ere ez eskatzea, nahiz eskubide hori haurren eskubideen artean jasota egon eta horixe babesten eta defendatzen duena izan, hain zuzen ere. Ba, halere, ezjakinarenean egiten dute sarri askotan. Haur hauek hezkuntza prozesuan, besteetan bezalaxe, jarraipena ere egin behar da, irakasle baten bi urteko lana ezin da etenda geratu bigarren hezkuntzara iristerakoan adibidez. Denbora pasatzen da, eta hamasei urtetara iristen direnean irakasleek jada ez dutela ikasle hauei artea berezia zertan jarri behar esaten digute eta beste eskola batera joateko aholkatzen digute. Holakoak eta bestelakoak agerian jartzen dute gaiaren inguruan dagoen ezjakintasun handia.

Zer pauso eman beharko lukete instituzioek eta eskolek haur hauei laguntzeko?

Lehendabizi adimen aparteko gaitasuna identifikatzeko ahaleginak egitea eskatuko genieke, adin txikietatik hasita, diagnostiko eta ebaluazio egoki batzuk eginez, gaur egun baitago hori egi-

teko nahiko material. Argi asko ikus daiteke haur bat goiztiarra edo talentu apatekoa den. Horrek irakasleak kualifikatuak izatea eskatzen du, eta burokrasia lanak, arinak. Atzerriko herrialde batzuetan horrelako haurren hezkuntza prozesua unibertsitateko urteetaraino dago jadanik ikasia eta landua, beraientzako ikasprograma egokiak diseinatu. Hemen, gure eskoletan, badirudi integrazioarekin eta sozializazioarekin nahiko dugula. Hori ondo dago baina ez da nahikoa. Zorionez, teknologi berriak medio informazioa areagotu egingo da eta irakasle askok laguntza aurkituko dute bertan, teknologia hauei eta erakusteko era berrietara moldatu beharko direlarik. Ezinbestekoa da informatuak egotea kongresuetara, jardunaldietara edo antolatzen diren ikastaroetara joanez. Ditugun aurreiritziak baztertu egin behar dira malguagoak eta ulergarriagoak izateko, hauxe baita milurteko berriaren joera, eta lehenik haur supergaituek hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak direneko kontzientzia hartu behar dugu.

Baina ezingo da dena irakasleentzako esku utzi, gurasoek ere lagun dezakete, ez al da hala?

Noski, guaza da elkarrekin hazi behar ditugula gure haurrak. Ordu asko iragaritzen dute eskoletan eta gurasoentzako ezinezkoa da ikasgeletan lehen aipatu adimen inhibizioa, aspergarritasuna, eta interes falta horiek konpentsatzea, ezin dugu. Maitasunez eta pazien-

tziaz bere buruekiko balorazioa egiten laguntzen diegu giza abileziak gara ditzaten. Horren ildotik, orain urte batzuk, gizarteak parte handiago hartzen zuen hezkuntzan; bizilagunak zirela, senitartekoak, lagunak, ezagunak eta ezegunak, haurren hezkuntzan eragin zuzenagoa zuten. Ondo-gaizkia, hainbeste aldiz aipatutako giza abilezeak, haurraren jakinmina, ezagutzaren eta maiatasunaren zergatiak erreferentzia zuten haien guztiengan. Egun, berriz, apenas dagoen heitzeko astirik, ezta etxean ere, gizarteak hartu duen erritmo berria eta gertatzen ari diren aldaketak bitarteko. Horrexegatik egiten da beharrezkoagoa irakasleen eta gurasoen arteko kolaborazioa. Guraso askok atzerrira bidaltzen dituzte beraien seme-alabak, egoera ekonomikoak ahalbidetzen badie, noski. Dakigunez, Estatu Batuetan eta Inglaterran adibidez, gero eta zabaldago dago gurasoek haurra etxean heitzearen aldeko joera. Internetek ere lagun dezake horretan. Garrantzitsuena entzuna izatea da, denbora eskaintzea, euren gaitasunak ematen dien kemena mantentzen laguntza, beldurrak eta segurtasun ezak uxatzen laguntzea; besteekiko behar den pazientzia eta maitasuna diziplina rekin konbinatu behar da.

Zergatik aspertzen dira haur supergaituak ikasgelan?

Haur horien interesguneak gelakotatik oso urruti daudelako. Beren adimen adinaren eta adin kronologikoaren artean ikaragarriko tartea egoten da, eta horrek badu eragina beste haurrekin erlazionatzeko garaian ere.

Zer eskaintzen die Garatuk gurasoei?

Informazio mota asko eskaintzen zaie gurasoei; esaterako, zein hezkuntza instituzioetara jo dezaketen, zein zentro pribatuetara joan, zein metodologiak erabiltzen diren eta abar. Egiten diren esperientziak ezagutzeaz gain euren esperientziak elkartrukatzeko gunea ere eskaintzen zaie eta hori, hasieran batik bat, oso baliagarria eta aberasgarria izaten da. Elkartean biltzeak gurasoak sentitzen dituzten emozioak kanporatzeko aukera ematen die, guraso askok asko sufritzen baitute. Elkartean babestuak eta ulertuak sentitzen dira



eta laguntza handikoa gerta daiteke. Beste hainbeste gertatzen da haurrekin onartuak ez direlako, diagnostiko okerrak egin zaizkielako; egoera latza jasan behar izan dute eta hori beste batzuei komunikatu ahal izatea esanahi handikoa da beraietzat. Elkartean antolatzen ditugun ekimenak haur askori barruan daramaten korapiloa kanporatzeko balio izan dio, eta horrek bere garapen prozesuan aurrera egitea ahalbidetu dio.

Jeneralean nola erreakzionatzen dute gurasoek haur supergaitua dutela antzematen dutenean?

Gurasoak euren pertsonalitatearen arabera erantzuten dute, beraz, modu askotan. Batzuek etxean jada antzematen zuten zer edo zer, eta gero kanpotik, susmoa baieztatu besterik ez zaie egiten. Beste batzuentzat, berriz, shock bat izaten da, gainezka egiten dien egoera batean aurkitzen dira, ez dakite zer egin, haur horrek zer behar duen, zer gertatuko zaien eta zer egin ez jakinean aurkitzen dira, batik bat, haur horrek eskolan porrot egiten badu. Horrek gainera, erraztasunik ez eta hainbat irakaslerekin haserreak izatea dakar berekin. Honi gehitzen badiogu hezkuntza instituzioetako kideekin sentitutako frustrazioa, egoera asko zailtzen da. Gerta daiteke haurra zentroz aldatzea erabakitzea bere haurra ahalik eta normaltasun handiengan egongo deneko ustean, emaitzak direnak direlarik. Beste batzuek, berriz, atzerrira bidaltzen dituzte. Ingurua eta bitartekoak funtsezkoak dira haur hauen gaitasunaren garapenerako, eta haurra bera ados badago onena izan liteke, nahiz gurasoek horregatik min hartu. Talentu aparteko haurrak dira baina jolas egiten dute, bihurrikeriak egiten dituzte, gogaikarriak izaten dira batzuetan; gurasoek gehiago

pozten gara gure haurrak egiten ari direnarekin gustura eta kontent daudenean eta ez nagitsu, triste eta bizipozik gabe.

Zein dira gurasoengandik jasotzen diren kexurik arruntenak?

Errespetu falta, eta lelokeria asko entzun beharra izaten dutela; esaterako "ez dietela hurrei hainbeste erakutsi behar, gurasoek gehiegi estimulatu dituztela, ez diezaietela hainbeste irakurtzen utzi...". Irakasleek eta PATetako teknikariek ez dute ulertzen gaitasuna gauza bat dela eta beste bat errendimendua, eta azken hau bakarririk hartzen dute kontuan. Ez dute behar adina bitarteko jartzen ahalik eta emaitza onenak gauza daitezten. Badaude lorpen gutxiko haur supergaituentzako hezkuntza programak ere, hauek porrot egiten dute eta ezin izaten dute goragoko ikasketetara heldu.

Ba al dago Garatu bezalako beste elkarterik. Zein harreman duzue haiekin?

Harremanetan gaude beste hainbat elkarterekin, beste komunitateetan dauden esperientzien, zalantzen eta aurrerapenen berri izateko eta gure esperientziekin aldentu eta trukatzeko; nazioarteko kongresuetara ere joaten gara eta, bide batez aipatu datorren abuztuan Bartzelonan izango dela hurrengoa, hain zuzen.

Kongresu hauek talentu aparteko haurren gaia dinamizatze oso baliagarriak izaten dira. Profesionalei eta profesionalgaiei hobeto sakontzen eta aztertzen laguntzen die eta aparteko gaitasunaren arlo ezberdinak ezagutzen ere.

Zein egoeratan daude beste herrialde batzuetan?

Zenbait herrialdetan haur txikiengandik hasita unibertsitatearaino irauten duten programa bereziak daude, eta, dibidez, ikastetxeetan haurrak ez dira adinez taldekatzen, interesgunez baidiz. Atzerrian, besozabalik hartzen dituzte; hemen, berriz, oztopo, dirulaguntzen murrizketa eta zentzugabeberia ugarirekin egiten dugu topo. Espero dugu noiz edo noiz hezkuntza aldatuko dela talentu aparteko haur horien onerako.

Zenbait argibide talentu aparteko haurrei hobeto ulertzeko



Carmen Maganto

EHU. Psikologia Fakultatea.



Talentu apartekotasunaren ebaluazioa gaitasun kognitiboen ebaluazioa baino gehiago da, eta eboluzio ikuspuntutik aztertutu behar da, adimenak zalantzan jarri behar ez den eboluzioa baitaika.

Talentu aparteko hurrez hitz egiten dugunean batez bestekoa baino adimen handiago duten haurrei egiten diegu erreferentzia. Baina ezinbetetan hainbat galdera sortzen dira: zer da adimena? Nola neurtzen da adimena? Berezkoa ala eskuratua da? Adimen bakarra dago ala adimen mota ugari daude?

Ez dira gai honi buruzko liburu batean aurki daitezkeen moduko erantzunak, autoreen arabera adimenari buruzko teoria desberdinak baitaude, eta teoriaren arabera adimenari berari buruzko definizio desberdinak. Be-

raz, bere isatsa jaten duen arrainen moduan, adimenaren definizioa eta adimen motak historian zehar burutu-tako ikerketen eta heziketa praktikoa eta profesionalen harian garatutako teoria eta eredu kontzeptualen baitan daude.

Gaur egun zenbait teoriak askatzen zaila den arazo bat planteatzen dute. Adibidez, teoria klasikoek, egingo teoriaren aurrean, garapen teoriko eta esperimental desberdina daukate. Garapen esperimentalerako tresnak falta diren bitartean, garapen teorikorako izugarriko tresna pila daude. Zenbait kasutan formulazio teorikoak osatu gabeak dira, eta esperimentalki frogatutakoak gutxi.

Artikulu labur honetan zera hausnartzea interesatzen zaigu:

1) Gehien erabiltzen diren adimenaren zenbait sailkapen.

2) Talentu aparteko pertsonen ezaugarri komunenetako batzuk.

3) Gaiak sortzen dituen eztabaida ohikoenak.

4) Guraso eta hezitzaileen jarrerak talentu aparteko haurren heziketa berezia dela eta.

1. Adimenaren sailkapenak

Adimen orokorra (G faktorea)

(Spearman, Vernon, Jensen)

Adimen gaitasunak

(Thurstone, Guilford, Gardner)

G faktoreak edo Adimen Orokorraren faktoreak adimen adierazpen guztiek faktore komun bat dutela dio, eta hori dela adimenaren benetako faktorea. Beste autore batzuek, aldiz, adimen hori osatzen duten faktoreak neurtzen saiatzen dira subjektu ba-



koitzaren berezitasuna osatzen duten puzzle bateko piezak balira bezala. Adimen gaitasunak defendatzen dituztenak oso konbentziturata daude subjektu bakoitzak gaitasun oso desberdinak eduki ditzakeela diotenean; esaterako, oroimena, kalkulu matematikoa, arrazonamendu logikoa edo sormena.

Talentu aparteko haurrak puntuaketa altuak jasotzen dituzte G faktorearen probetan, eta aldi berean, ohiko proba klasikoetan ebaluatutako gaitasunetako adimen gaitasunetan ere puntuaketa altua lortzen dute.

Adimen kognitiboa

(Stenberg, Gardner)

Adimen emozionala

(Coleman)

Orain dela gutxi funtzionamendu kognitiboan edo sozialean oinarritutako adimenaren bi sailkapen kontrajarri dira. Lehenengoarentzat adimen kognitiboa adimenaren adierazpen ezagunagoa eta klasikoagoa da. Batez ere pentsamenduaren prozesuetan oinarritzen da, egitura kognitiboak ezagutzearen, pentsatzearen, jasotzearen, memorizatzearen eta sortzearen antolaketan. Colemanentzat, ostera, adimenak pisu emozional-sozial handia dauka. Hau da, eguneroko bizitzan arrakasta lortzeko eta egoerak konpontzeko gaitasunean ez dago prozesu kognitiboa soilik, baita emozionalak, harremanezkoak eta testuingurukoak ere. Batzuetan nork bere buruarekin duen segurtasuna errazago lortzen da baldin eta norekin eta non hitz egiten ari den konturatzen bagara eta zein eratarata jokatu behar dugun konturatzen bagara. Osterantzean, arazo konplexuak gainditzeko gai bagara, baina egoera konpontzerakoan inguruan dauden aldagaien garrantziaz ohartzen ez bagara, segurtasun horren arrakasta ez da hainbestekoa izango.

Talentu aparteko haurrek zailtasunik gabe gainditzen dituzte gaitasun kognitiboak ebaluatzen dituzten tresnekin aurkezten zaizkien arazoak. Ai-

tzitik, adimen emozionaleko ebaluazioetan ez dituzte hain emaitza onak lortzen. Horren arrazoia zera da: zenbait subjektuk, eta bereziki adin zehatz batzuetakoek, garapen kognitiboaren eta emozionalaren artean eboluzio desberdina dutela.

Adimen jariakorra

Horn and Noll

Adimen kristalizatua/gauzatua

Bi kontzeptu hauek kontrajartzeak ikasketara moduari eta adimenaren funtzionamenduari egiten die erreferentzia. Eskola tradizionalak adimen "kristalizatua" garatu izan du, hau da, zehaztasunez irakatsitakoa ikasteko gai den adimena, ezagutzen adimen errepikakorra eta memoristikoa, zenbait unibertitate ikasketetan eta lanbidetan oinarritutakoa dena. Baina, adimen "jariakorra" ezagutza beste modu batera osatzeko gaitasuna adierazten du; adimen sortzaileagoa eta orijinalagoa, eta pentsamenduaren prozesuetan autoelikatzen dena.

Talentu aparteko haurrak sortzaileak dira, erantzun orijinalak ematen dituzte, ezagutzak eratzeko gai dira, eta aldi berean, oroimen bikaina dute, hori delarik txikitatik bereizten dituen faktoreetako bat eta helduei arreta gehien sortzen diena.

Arazoen moldaketa/konponketa

(Guilford)

Adimen sortzailea

(Renzulli, Torrance)

Adimenaren inguruan garatu den beste kontzeptuetako bat adimen amoldatzailearena da, hots, sortzen den egoerari irtenbide onena bilatzeko gai dena. Aurrez ikasitako soluzioak izaten dira, eta beraz, aurretik ikasitakoa egoera baten aurrean funtzionamenduan jartzeko gaitasuna da. Adimen sortzaileak, ostera, irtenbide berria, desberdina eta orijinala bultzatzen du egoera bat konpontzekorakoan.

Orokorrean, talentu aparteko haurrak adimen sortzaileagatik gehiago bereizten dira adimen moldatzaile-

agatik baino.

Produktuaren adimena

(Psikometria klasikoa. Terman)

Prozesuaren adimena

(Kognitibismoa)

Tradizionalki, adimenaz pentsatzen dugunean produktu bat imajinatzen dugu, hau da, talentu apartekotasunaz hitz egiteko Adimen koefiziente bat irudikatzen dugu, adibidez 130, 140 eta abar. Haatik, koefiziente horiek ez digute esaten haur bat nola iristen den adimenaren probetan puntuaketa horiek lortzera. Produktua ondorio bat da, baina bi haurrek antzeko emaitzak eduki ditzakete adimen mota oso desberdina eduki arren. Teoria kognitiboari interesatzen zaiona da pertsona bat nola iristen den arazo bati irtenbidea aurkitzera, egoera berri baten aurrean moldatzera edo galdera berri bati zehatz, orijinal eta zuzen erantzutera. Kognitibismoari produktua edo probaren emaitza baino gehiago interesatzen zaizkio ezagutza eratzeko erabiltzen diren pertzepziozko faktoreak, oroimenezko faktoreak, informazioaren prozesatzea eta datuen integrazioa.

Talentu aparteko haurren berezitasuna hori da, hain justu, informazioa prozesatzeko duten modua, arazoak konpontzeko erabiltzen duten bidea, eta euren ezagutzaren genesisia, zeina azkartasunean eta lortzeko moduan desberdintzen den talentu apartekoak ez diren haurrekin alderatuz.

Berezko adimena

(Eysenk, Vernon)

Adimen eskuratua/kultura

(Vigotski)

Azken kontua izan arren, ez da garrantzi gutxi duena. Gurasoak, hezitzaileak eta profesionalak kezkatzen dituen gaia da adimena berezkoa edo eskuratua ote den. Gaur egun, galdera hau eztabaidagarria izatetik gizarteratua izatera pasa da. Zalantzarik ez dago adimentsuak jaiotzen gara, batzuk gutxiago eta beste batzuk

G

Talentu aparteko haurrak

Hautentzat ere hezkuntza berezia

gehiago. Baina dudarik ez dago kulturak, ingurumenak eta estimulazio egokiak ere lehen uste zena baino gehiago garatzen dutela adimen hori.

Kontu honek haurrak nola hezten digun hausnartzera garamatza. Eta Gaussen kurbaren muturretan dauden hurrekin heziketa neurriak hartuzera bultzatzen gaitu, hots, adimenezintasuna duten hurrekin eta talentu aparteko hurrekin. Biak dira heziketa behar bereziak dituzten subjektuak. Adimena gara daiteke, eta horregatik bultzatzen dira heziketa bereziko gelak, laguntza gelak, curriculum egokitzapen indibidualak eta abar. Adimen ezintasunak eta mugak dituzten hurrek heziketa alternatiba horiek eskura dituzte. Baina adimena gelditu eta blokeatu ere egin daiteke, eta hasierako gaitasunen arabera garatu gabe gera daiteke behar dituen estimuluak ez edukitzeagatik edo aurkako giroa edo giro zorrotzegia topatzeagatik. Talentu aparteko hurrek beharrezkoa duten adimen "elikagaia" behar dute beren gaitasunak garatzen jarraitu ahal izateko. Oterantzean, frogatua dago adimenak garapen goiztiarra ez jarraitzeko arriskua dagoela. Hortan datza, beste arrazoen artean, identifikazio goiztiarren eta progresiboaren garrantzia batez bestekoa baino garapen handiago somatzen bada.

Aitzitik, adimenak eboluzionatu egiten duenez, beharrezkoa da adimen goiztiarrak ebaluazio etapa desberdinak edukitzea eta momentu bakoitzean garapen horren baitan norabidetzea ebaluazio hori. Hizkuntzaren garapenean, irakurketa-idazketa-zenbakien kalkuluan

edo sormenean goiztiartasuna edukitzeak ez du bermatzen haur baten talentu apartekotasuna. Hala ere, bere garapena behatzera eta ebaluatzera bultzatzen gaitu garapen goiztiarra bultzatzeko zeregin espezifikoak emanaz. Dena den, haurra bere adimena baino gehiago da, eta edozein ebaluazio egiterakoan, eta are gehiago talentu apartekoa dela uste dugun haurraren kasuan, bere nortasuneko alderdi guztien ebaluazio integrala egin behar da: familiarreko eta beste pertsonakiko harremanak, egokitzeko ahalmena, bere buruarekiko duen asebetetzea, motibazioak, lanerako iraunkortasuna, sormena, autoestima eta abar. Haurraren heziketa curriculum egiteko beharrezkoa da bere nortasunaren eta eskolako eta familiarreko egoeraren ebaluazio integrala egitea. Batzuetan adimena inolako arazorik gabe garatzen da, baina nortasu-

na asaldatu egiten da lagunek, familiarreko edo hezitzaileek errefusatuko duenaren beldur delako. Haur askok nahiago dute "normal" bezala pasatzea "desberdinak" izatea baino. Hori jakin beharreko gauza da haur horiei pertsonalki eta sozialki ongi egokitzeko lagundu nahi badiegu. Biak bana ezin dira eboluzio garapen ona lortzeko.

2. Talentu aparteko haurren ezaugarriak

Talentu aparteko haur guztien profirik ez dago, haur bakoitza, talentu apartekoa izan edo ez izan, desberdina baita. Hala ere, beste haurrengan baino ohikoagoak diren zenbait ezaugarri aurkitu dira. Horien artean hauek dira azpimarragarrienak:

a) Bere adineko batez bestekoa baino askoz adimen altuagoa. Hau da talentu apartekotasuna oinarritu den puntu tradizioaletako bat. Adimen probetan bere adinekoen batez bestekoa eta eskolako maila bi desbiazio tipikoetan gainditzen duten subjektuak dira. Hala eta guztiz ere, adimenaren eta talentu apartekotasunaren kontzeptuak zenbait aldaketa jasan ditu mende honetan; kontzeptu unidimentsionala izatetik pertsona, egoera eta momentuaren arabera modu



eta maila anitzetan agertzen den kontzeptu multidimentsionala izatera pasada (Reyero eta Touron, 2000). Gaur egun talentu apartekotasuna hainbat gaitasunen multzoa bezala ulertzeko joera dago. Horrek talentu apartekoaren eta adimentsuaren arteko bereizketa klasikoa konplikatu egiten du. Beraz, bere adinekoek baino adimen altuagoa duen haurraz hitz egiten dugunean, ez gara puntuaketa kuantitatibo batez soilik ari, baizik eta puntuaketa horren alde kualitatiboaz. Alderdi horrek bideratuko du identifikazioa eta interbentzioa.

b) Garapen goiztiarra. Zenbait trebetasun eta ikasketa nolako azkartasunez hartzen dituzten ikusita harritzen dira gurasoak batik bat. Adibidez, margotu, batuketak egin, irakurri, zuzen eta egoki hitz egin eta abar. Garapen horrek adin bereko bere lagunei modu eraginkorrean laguntzen die.

c) Arazoak konpontzeko garaian desberdinak dira kualitatiboki. Egoera berrien eta ikasteko egoeren aurrean ez dute helduek erakutsi dieten alternatiba edo trebetasunekin erantzuten. Beraien metodo propioak, desberdinak eta berritzaileak garatzen dituzte eguneroko bizitzako arazo bati, arazo matematiko bati edo erlaziozko arazo bati irtenbidea bilatzeko.

d) Erronkarekiko eta gauza zail eta berriekiko interesa. Gauza zailak erakartzen dituzte, beraien adimenerako eta gaitasunerako erronka diren gauzek. Zeren gehinetan, eta batez ere eskolan, beraien mailarako errazegiak, arruntak eta ondorioz aspergarriak diren egoeren aurrean aurkitzen baitira.

e) Gaitasun akademikoak. Talentu aparteko haur asko trebetasun batean oso azkarrak izan ohi dira; esaterako, musikan, arlo artistikoan, matematiketan edo kirolean. Eskolan besteak baino azkarragoak izan daitezke trebetasun horiek eskolak bultzatzen duen norabidean baldin badoaz, trebetasun matematikoen eta linguistikoen kasuan bezala. Aitzitik, beste trebetasun batzuetan azkarrak edo talentu apartekoak izan arren, baliteke

aparteko gaitasun akademikorik ez izatea.

f) Lanak egiteko azkartasuna. Lanak ongi bukatzeko duten azkartasunaz berehala ohartzen dira gurasoak eta hezitzaileak. Gaitasun handiagoa dutela erakusten duen adierazleetako bat da. Normalean beste haurrek egiten dutenaren denbora erdian egiten dute lan bera. Edo azalpen xume batekin uler dezakete, hezitzaileak haurren gehiengoak ulertzeko eskaintzen duen gainontzeko azalpena soberan dutelarik.

g) Orijinaltasuna/sormena. Sarritan talentu aparteko haurrak beren sormenagatik, beren orijinaltasun plastikoagatik, beren marrazkiengatik edo beste gaitasun sortzaileengatik bereizten dira. Normalean sortzea, diseinatzea eta gauza berriak asmatzea gustatzen zaie. Beraien ideiak adierazteko askatasunarekin gozatzen dute, eta modu batera edo bestera aurrrera eramateko moldatzen dira.

h) Lorpenaren motibazioa. Lan bat zaila denean edo heziketa helburu bat lortzeko oztopoak daudenean, haur gehienek laguntza positibo bat edo hezitzailearen motibazioa behar dute lan horretan jarraitzeko. Alabaina, talentu aparteko haurrek nahi duten xedea lortu arte jarraitzen dute, jomuga konplexuak lortzeko motibazioa dute, beren helburuak lortzeko irmotasuna. Beharbada hau izango da arrakastara segurtasun gehienez eramaten dituen ezaugarria.

i) Moralaren eta justizia sozialaren gaiei buruzko interesa. Beren adimen garapenak beraien adineko haurrek planteatu ere egiten ez dituzten galderak egitera bultzatzen ditu: zergatik hiltzen gara? Nora joaten gara hiltzen garenean? Zergatik daude gerrak? Zergatik ez dira zuzenagoak agintariak? Nor da zoritxarren erantzulea? Galdera hauen erantzunak oso zailak dira, beraien jakin-mina izugarria delako eta helduok ez dakigula zer eta nola erantzun. Agian hau izango da haur horiengan sufrimendua sorrazten duen puntuetako bat. Zeren, alde batetik, dauden arazoak ikusten

baitituzte, eta beste aldetik, beraien nortasunak eta emozioek ez baitute ikusten duten errealitatea jasateko adinako heldutasunik. Gauza bera gertatzen da gurasoen arteko harremanarekin, eskolako injustiziekin, edo beste edozein egoera sozialekin. Ez datoz bat egoera sozialak ezagutzeko eta ulertzeko duten gaitasun intelektuala eta beren bizitzan bereganatzeko, gainditzeko eta barneratzeke duten gaitasun emozionala. Horrek sufrimendu psikikoa eta barkardade sentimendua sorrazten dizkie. Batzuetan nahiago dute horrelako galderak ez egitea besteak kezkatu egiten direlako beraiek dituzten galderekin eta ideiekin.

j) Datu konplexuen sintesia modu errazean. Sintesi gaitasuna adinarekin lortzen da. Normalean haur hauek ohikoa baino datu gehiago maneiatzeko gai dira eta datu horiek zentzuzko sintesi batean barneratzeke gai dira, modu erraz eta argian egiten dutelarik. Matematika arazoak edo ahozko logika ez dira zailak eurentzat, eta hainbat kontzeptu erraz ulertzea eskatzen duen pentsamendu edo ideia abstraktuak ahoz adieraztea ere ez.

k) Subjektu bakoitzaren beste berezitasun batzuk. Haur hauek bere familiararen, kulturaren, ingurumenaren araberrako eta beren idiosinkrasia pertsonalaren araberrako berezitasun propioak dituzte. Hau da, aldagai horien guztien interakzioak subjektu bakoitza pertsona bakarra bihurtzen du. Horregatik, haur lotsatiak eta irekiak





G A I A

Talentu aparteko haurrak

Hautentzat ere hezkuntza berezia



aurki ditzakegu, ziurrak eta ziurtasunik gabeak, isolatuak eta lagunkoiak eta abar. Subjektu bakoitzak bere ebaluazio pertsonala behar du heziketa pautak bere ezaugarri pertsonalei egokitu ahal izateko.

3. Eztabaida ohikoenak

3.1. Identifikazioa eta ebaluazio goiztiarra

Beharrezkoa al da identifikazioa eta ebaluazio goiztiarra ala hobe da beranduagorako uztea?

Hori da sortzen den kezketako bat: noiz identifikatu, ebaluatu edo diagnostikatu behar dira talentu aparteko haurrak? Printzipioez dago adin idealik, identifikazioak eta ebaluazioak eboluziozkoa izan behar du; hau da, eduki kognitiboak hartzerakoan eboluzio aldaketa nabarmenak egiten dituen adin tartetan edo eskolako heziketa ziklo desberdinetan identifikatu eta ebaluatu behar da.

Nork egin behar du identifikazioa edo diagnostikoa? Horretan ere ez dago adostasunik, baina dudarik gabe, gurasoak dira garapena goiztiarra dela ohartzen diren lehenak. Ondoren, eskolan ere ikusten da gaitasun handiagoa dutela, hausturarik gabe ikasten dutela edo beste haurrek baino azkarrago ikasten dutela. Komenigarria da haur horien portaera eta ikasketa prozesua sistematikoki erregistratzea, hala nola gaitasun kognitiboen, eta harreman sozialen eta pertsonalen gaitasunen ebaluazio espezifikoak egitea. Azterketa horien helburua haurren integrazioa lortzea izango da, eta ez adimenari soilik begiratzea. Horregatik, ebaluazio horiek egiten ohitua dagoen eta talentu apartekotasunari

buruzko ezagutza duen profesionala behar da. Dena dela, adimenak pentsakera formalaren garapena lortu arte, hau da, gutxi gorabehera 11-12 urtera arte, ez da komeni talentu aparteko etiketa jartzea haurrari. Hortaz, adin hori da haur bat talentu aparteko bezala identifikatzeko egokiena.

3.2. Ebaluazioaren helburuak

Ebaluazioaren helburuak, orduan, hauek dira: garapen goiztiarra edota gaitasun handiagoak goiz identifikatzea, eta haurraren ezagutza integrala aztertzea adimenaren garapena subjektuaren nortasun globalean kokatzeko. Ebaluazioaren zeregin garrantzitsua haurrari bere bizitzako alderdi guztietan behar dituen estimuluak ematea da, batez ere defizitarioak diren alderdietan. Era berean, zeregin garrantzitsua da laguntza eta euskarriak eskaintzea bere burua beldurrik gabe onar dezan, bere kezka eta interesen inguruko galderak egitera ausart dadin eta besteekin erlazionatzen ikas dezan, batez ere desberdinaoak direnekin.

3.3. Adimena eta errendimendua

Nahiz eta ez hala uste izan, talentu aparteko haurrek ez dituzte beti emaitza akademiko bikainak lortzen, ezta onak ere. Batzuk azterketak edo probak ez dituzte gainditzen edo emaitza kaskarrak lortzen dituzte. Portaera horiek esplikatzeko dituzten arrazoen artean zera dago: besteen gaitetik jartzeko eta desberdina izateko beldurra. Ondorioz, ez dute beren gaitasun mailaren arabera erantzuten. Batzuek nahiago izaten duten zailtasunak dituen haur bat bezala pasatzea "talentu

aparteko" deitzea baino, "talentu aparteko" izateak bere lagunen artean sortzen duen errezeloa, konfidantza eza eta mesprezua ikusten baitituzte. Errefusatu izateko beldurrak eraginda, ez dute nahi izaten beren errendimendua besteena baino handiagoa izaterik. Bestalde, lehenengo ikasturteetan aspertu egin badira, eskola zerbait monotonoa, interesik gabea eta pizgarririk gabea bihurtzen da. Egocora horretan enbarazu egiten dute eta jarrera arazoak sortzen dituzte, eta horrek beren errendimenduan eta ikasketetan eragin negatiboa du.

Beste zenbait kasutan besteek beariengandik asko espero dutela konturatzen dira, eta gehiegizko eskakizun horri ez diote erantzun nahi izaten. Horregatik errefusatzeko dute ikastea eta emaitza akademiko onak lortzea, batzuetan emaitza txarrak ateratzera iristen direlarik. Besteen antzekoa sentitzeko modu hoberena hori dela uste dute, eta gurasoengan beste interes bat sortzeko modua dela ere bai, hau da, lehengo erantzun orijinal eta helduek sortzen zuten interresetatik desberdina den beste interes bat.

Talentu aparteko haur batek ez ikasteko izan ditzakeen arrazoiak asko dira, baina ohikoenak zerikusi zu-

zena dute besteek talentu apartekotasunari buruz duten irudiarekin, eta ondorioz, horrek duen onarpen sozialarekin.

Arrazoi horien eta beste batzuen ondorioz, hasieran altua zen ikasteko motibazioa galdu egiten da, eta eskola leku desatsegina bihurtu daiteke ikasketak eta errendimendu arazoak direla-eta.

3.4. Adimena eta nortasuna, soziazialitate eta autokontzeptua

Lehen esan dugunez, ez dago talentu aparteko haurren profil bakarrik eta homogeneorik. Are gehiago, haur horien artean desberdintasun handiak daudela esan genezake, eta beraien artean alde handiak daudela, batez ere nortasunaren, soziazialitatearen eta autokontzeptuaren garapenera dagokionez.

Familiako eta eskolako testuinguruaren eragina klabea da bere balioen eta puntu indartsu eta ahulen integrazio hobea edo okerragoa lortzeko. Talentu apartekotasunaren mesedetan beren seme-alaben haurtzarora sakrifikatzen prest dauden familiak badaude. Hori dela eta, seme-alabak adin bereko beste haurrengandik bereiztea erabakitzen dute, edo zentro berezietara eramatea, eta uneoro eta beste ezeren gainetik ikasketetan errendimendu altua eskatzen diete. Guraso horietako batzuentzat bere seme edo alaba erakusgai den garaiak dira, eta familiakoei zein lagunei bere errendimenduaren edo ezagutzen gainera anekdota ikusgarriak kontatzen aritzen da beti. Horrek askotan haurra gogaitu eta atsekabete egiten du. "Altzariz ongi hornitutako" buru edo gizaki pentsalari bezala bakarrik kontsideratzen dira, ez beste ezer gehiago. Beste guraso batzuek ez dute entzun ere egin nahi beren semea edo alaba talentu apartekoa denik. Hala izango ez balira bezala jokatzen dute beraien; ez diete beren kezkei, ardurei eta interesari erantzunik ematen, ez eta beren garapenera eragotzirik beharrezkoak dituzten estimulu-



rik ere. Eskolan ere desberdinak sentitzen dira, behatuak. Batzuetan gaitortzeak iseka egiten diete, eta beste batzuetan miretsiak izaten dira, hori ere desio ez dutelarik.

Zenbaitetan hezitzaileek ez dakite nola jokatu; beren gaitortzeak direla eta tratamendu desberdina eman, edota "normalak" izan daitezen saiatu erreferentzia taldeak ez diskriminatzeko. Haur horien galderak gogaikarriak eta nekagarriak izaten dira irakasleentzat, bai galdera zehatz bat espero ez dutelako, eta bai erantzunik ez dakitelako. Hezitzaileak adimen zailtasunak, adimen urria eta ikasteko zailtasunak dituzten haurrei arreta berezia jartzeko prestatzen dira. Bizkitartean, talentu aparteko haurren aurrean ezagutza nahikorik gabe, jokatzeak estrategiarik gabe eta gelan sortzen diren egoerei erantzun egokirik eman ezinezkoak dira.

Adimenaren garapena eta garapen emozionala eta nortasunarena ez doaz beti batera. Horrek, lehen esan bezala, sufrimendu psikikoa sortzen du bere heldutasun emozionala gaitortzen duten arazoei aurre egiterakoan. Horregatik sentitzen dira desberdinak eta ez-ulertuak, horregatik izaten dute galdetzeko, bereizteko eta beraien arazoei aurre egiterakoan. Horregatik sentitzen dira desberdinak eta ez-ulertuak, horregatik izaten dute galdetzeko, bereizteko eta beraien arazoei aurre egiterakoan.

Arrazoi horiek, beste batzuekin batera, haur horien nortasuna ahuldu eta mindu egiten dute. Ez da zaila haur horietako batzuek arazo psikopatologikoak aurkitzea eta momenturen batean tratamendu terapeutikoa behar izatea. Nahiz eta beraien arazoei aurre egiterakoan asko espero, ez daukate autokon-

tzeptu altua eta eta soziazialitate arazoak sarritan izaten dituzte. Bakarrik daudenean besteekin daudenean baino arazo gutxiago dutela ohartzen dira, eta ondorioz, isolatzeko joera sarritan antzematen zaie.

4. Heziketa berezia behar dute

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen haur horiek heziketa berezia behar dutela. Hau da, moldaketa kurrikular espezifikoak dituen arreta berezia behar dute eskolan. Hala ere, irakasleek eta gurasoek hainbat jarrera landu eta aldatu behar dituzte aniztasunari eta integrazioari ez diotelako mesederik egiten. Jarraian aipatzen diren jarrerak dira landu eta aldatu beharreko horiek:

4.1. Irakasleen jarrera

- Haur hauei dieten errezeloa eta beldurra. Ez dakite nola erantzuniko duten.

- Haur horien inguruan dauden aurreiritziak eta estereotipoak, bai beren portaerei buruz eta bai beren errendimenduari buruz.

- Haur desberdinak, azkarrak, adimentsuak edo talentu apartekoak bezala identifikatzeko beldurra. Etiketa-errefusatzeari. Alabaina, diagnostikoak ez du errealitatea sortzen, errealitate horren izen bat edo ezagutza bat baino ez du ematen.

- Gai honetarako formakuntzarik ez dago, eta ezegunak beldurra eta errefusatzeari dakar.

- Gaia lantzeko programa espezifikorik ezak heziketa ezintasuna sortzen du, baldin eta identifikazio goiztiarra bada.

- Laguntza instituzionalik ez dagoenaren sentimendua. Gelan oso azkarrak den haurra antzematen bada, instituzioek diagnostiko eta interbentzio lana atzeratu egiten dute.

- Haurren errendimenduaren aurrean gurasoek egiten duten presioa dela-eta, irakaslea egoera zailan aurkitzen da; alde batetik haurren integrazioa bideratu behar du maila

guztietan, eta bestetik gurasoen presioa jasotzen du gelako eta gelaz kanpoko programak azkartu daitezen eskatuz.

- Normalean errealitatea onartze-ko jarrera izaten dute, informazioa eskatzen dute eta haur horientzako estrategiak ezartzeko alde aurretiko jarrera ona izaten dute. Hori izaten da jarrera ohikoena, nahiz eta hasieran nahasmena sortu. Hezitzaileek interes berezia dute adimenaren garapenaren eta nortasunaren garapenaren arteko oreka bultzatzeko maila guztietan.

4.2. Gurasoen jarrerak

- Talentu aparteko haurren gurasoen jarrera eredurik ere ez dago, jarrerak familia bakoitzaren araberakoak izan ohi dira. Hala ere, ohikoenak hauek dira:

- Talentu apartekoak direla ahazten dute eta ez diote garrantzirik ematen.

- Semearen edo alabaren gaitasunez hitz egiten diete denei eta "erakusgai" bezala erabiltzen dute.

- Arlo guztietan batez bestekoaren gainetik dagoen errendimendu akademikoa eskatzen diete.

- Irakasleei eta instituzioei arreta berezia eskatzen diete, adituek beharrezkoa eta egokia dela uste dutena baino gehiago.

- Adimenaren eta nortasunaren garapenaren arteko desoreka bultzatzen dute.

- Arazoaren aurrean bakarrik sentitzen dira eta ulertzen ez dieten sentimendu mingarria sortzen zaie. Hori haurrari transmititzen diete.

- Frustrazio sentimendua sortzen zaie talentu aparteko seme edo alabak errendimendu baxuak edo nortasun arazoak baldin baditu. Kasu horietan, arazoa kanpoko eraginei egotzi ohi diete.

- Beste seme-alabenganako arretan gutxitu egiten dute positiboki edo negatiboki konparatzen dituztelarik.

- Bikoteak ikuspuntu desberdina eduki dezake, eta egoerari aurre egiterakoan beraien arteko harreman-

an zailtasunak sortzen dira.

Talentu aparteko haurrei buruzko puntu gatazkatsuenak aipatu ditugu, eta seguraski ohartuko ginen uste baino gutxiago dakigula gai honi buruz, eskatzen duen errespetuari buruz, eta haur horiek behar duten laguntzari buruz. Zalantzarik gabe, gurasoak eta irakasleak batzuetan bakarrik senti-

BIBLIOGRAFIA

- Araceda, A. y Sastre, S. (1998) La superdotación. Madrid. Síntesis.

- Benito, Y. (1992) Desarrollo y educación del superdotado. Salamanca. Amarú.

- Berché, J. (1999) La superdotación infantil: del mito a la realidad. Barcelona. ISEP.

- Ellis, J. Y Willinsky, J. (1999) Niñas, mujeres y superdotación: un desafío a la discriminación educativa de las mujeres. Madrid. Narcea.

- Freedman, J. (1988) Los niños superdotados: aspectos psicológicos y pedagógicos. Madrid. Santillana.

- Geenovart, C y Castelló, A. (1993) El límite superior. Aspecto psicopedagógicos de la excepcionalidad intelectual. Madrid. Pirámide.

- Genovart, C. (1982) Consejo y Orientación psicológica. Madrid. UNED.

- Mayor, J. (1988) Manual de Educación Especial. Madrid. Anaya.

- Monereo, C. (1987) Áreas de intervención del psicólogo de la educación en la integración escolar del alumno con necesidades especiales. Barcelona. ECOM.

- Pérez, L. (1993) 10 palabras cla-

tzen dira euren heziketa eginkizunean. Baina benetan bakarrik sentitzen direnak haurrak beraiek dira. Hausnarketa hauek beraiengana errespetu gehiagorekin, beldur gutxiagorekin eta ulermen gehiagorekin hurbil gaitzen laguntzea espero dut. Hori da benetan behar dutena.

ve en Superdotados. Estella. (Navarra). Verbo Divino.

- Reyero, M. y Tourón, J. (2000) En torno al concepto de superdotación: evolución de un paradigma. Revista española de pedagogía. 212, 7-38.

- Secadas, F. (1998) Escolares superdotados. Revista de psicología 2, 117-132.

- Torrance, E.P. (1977) Educación y capacidad creativa. Madrid. Marova.

- Tourón, J., Peralta, F. y Repáraz, Ch. (1998) La aceleración como estrategia educativa para alumnos de alta capacidad académica: concepto, modalidades y evaluación de resultados. Revista española de pedagogía, 203, 5-39.

- Tourón, J., Repáraz, Ch. y Peralta, F. (1998) La superdotación intelectual: modelos, identificación y estrategias educativas. Pamplona. Ciencias de Educación. EUNSA.

- Wallace, W. (1988) La educación de los niños más capaces. Madrid. Visor.

- Verhararen, P.R. (1991) Educación de alumnos superdotados. Madrid. MEC.

G A I A
Talentu aparteko haurrak
Hautentzat ere hezkuntza berezia

G

E L K A R R I Z K E T A

loli anaut

**Amara Berri Sistemaren
sortzailea**



E

Hezkuntza Elkarteko osorako
eta norberaren eta taldearen
hazkunde pertsonalerako
proiektua da



Ioli anaut

E

Ez genuen
gogoko orduko
eskola.
Orokorrean klase
magistralak eta
testuliburuak
ziren eskoletako
elementu
nagusiak.
Irakasleak agindu
eta ikasleek
obeditu egiten
zuten, baina
ikaslea ez zen
benetako egilea.

Gaur egun irakas-
kuntzan oso ezaguna
den Amara Berri
Proiektuaren sortzai-
lea izan zen Ioli Anaut.
Durangoko Jesuiten
ikastetxean hasi zen
proiektu berritzaile bat
gidatzen 1972an. "Izan
zitekeen eskola" libu-
ruan islaturik gelditu
zen esperientzia hura.
Ondoren, Donostiako
Amara Berri ikastetxe-
ra joan zen, eta han es-
perientzia hari jarrai-
pena eman zion. 20 urte
geroago ikastetxe asko
dira proiektu bera lan-
tzen dutenak.

Urteetako lanaren
fruituak ikusita eta lan
horri jarraipena eman-
go dion talde sendoa
dagoela jakinda jubila-
tu berri da Ioli. Amara
Berriko gelak utzi ditu,
baina oraindik ere bere
ekarpena ez da bukatu.
Gauza asko ditu konta-
tzeko, eta guztiak libu-
ru batean biltzeko as-
moa du. Aurrera begira
lasai egiteko lana izan-
go da berea. Bien bitar-
tean, ahoz azaldu dizki-
gu bere esperientzia-
ren eta Amara Berri
proiektuaren inguruko
kontuak.

**Gaur egun Amara Berriko Siste-
ma bezala ezagutzen den hezkuntza
ereduaren hastapenak Durangon e-
man ziren, eta zeu izan zinen sortzai-
lea. Nolakoak izan ziren zure hasta-
penak hezkuntza esparruan?**

Donostiako Mariaren Lagundian,
bertako kide nintzela, hasi nintzen ira-
kaskuntzan. 1970ean Estatuko hain-
bat lekutako irakaslez osatutako pe-
dagogia ikertze talde batean sartu nin-
tzen. Madrilen biltzen ginen eta elka-
rrekin ikasi, kontrastatu eta formazio
ikastaroak ematen genituen. Urte a-
beratsak izan ziren, maila pertsonale-
an eta kulturean irekitasun handi-
koak. Han nintzela, 1972an Durango-
ko Jesuiten ikastetxean OHOk zu-
zendaritza pedagogikoa eskaini zida-
ten. Niretzat aldaketa eta pedagogia
berrikuntza suposatzen zuen erronka
onartu nuen, eta gaur egun Amara Be-
rri denaren oinarria jarri zen han.

Zer aldatu nahi zenuen?

Hasteko, irakasle talde bat osatu e-
ta lan taldea egin. Irakaskuntzan hasi
berriak ziren irakasle gazteak sartu zi-
ren. Ilusioz eta jakin-minez beteta, gi-
zarte kontzientzia eta gizatasun han-
diko irakasleak. Ez zuten gogoko or-
duko eskola. Orokorrean klase ma-
gistralak eta testuliburuak ziren esko-
letako elementu nagusiak. Irakasleak
agindu eta ikasleek obeditu egiten zu-
ten, baina ikaslea ez zen benetako egi-
lea, eta ez zen bere prozesuaren kont-
zientzia bilatzen zuena. Ikasleari be-
rari buruz hausnartu behar genuela
pentsatzen genuen, bera baitzen guk
lantzen genuen lehengai bizia.

**Nolakoa zen ikaslea zure-
tzat, nola definitzen zenuten?**

*Izaki globatzat jotzen genuen eta
egun ere horrela jotzen dugu, hau da,
bere garapenaren esparru guztiak
kontuan hartzen ditugu: bere nortasu-
naren garapena, bere harreman sozia-
lak eta arloei lotutako ikasketak.*

*Ikasleak bere interesak eta moti-
bazioak ditu. jolasa eta jolasaren bi-
tarte helduen mundua imitatzen du.*



Pedagogia

ikuspegitik berebiziko kontzeptua da. Ez diogu beldurrik izan behar jolasa hitzari, hezkuntza asmotik sortutako jolasa bada. Helduak izanda ere, jostatzen dugu.

Ikasle guztiak desberdinak dira. *Bakoitza emozio eta kontzeptu eskema zehatz batetik abiatzen da eta bada bere ahalmena.*

Hiru atal horiek present egon behar zuten metodologian. Bizitza globala zela esaten genuen eta esaten dugu. Ikastetxean bizi jarduerak sortu behar dira, non ikaslea izan eta bizi ahal izango den, eta bizi denez ikasi egingo duen. Jarduera horietan norberak bere erritmo eta mailan lan egin ahal izango du.

Azaldu eta zehaztuko al duzu jarduera mota hori?

Bai. Adibidez, matematika lantzeko banku-etxea, biltegizainak, saltzaileak eta erosleak dituen "Komerziala departamentua" daukagu, geometria lantzeko "Diseinu tailerra", eta abar. Alderdi kurrikularra askoz gehiago zehaztu zen geroago Amara Berri. Durangon, aldiz, gehiago sakondu zen ikasleen antolaketa, hots, beren asanbladak eta zerbitzuak. Jarduera horrek adin desberdinetako ikasleak elkarrekin erlazionatzen ditu, eta curriculumaren arlo ofizialaz bakarrik nekez lantzen diren alderdiak garatzen ditu.

Nolako erantzuna izan zuten ideia hauek 1972. urtean?

Garai hartako gizarteak ez zuen ulertu. Beste garai batzuk ziren: fran-

kismoaren urteak ziren, euskaraz ikasteko departamentu klandestinoa antolatu genuen... Proiektuak ez zuen bat egiten garai hartako egoerarekin. Ulertzeko zaila zen, ez zen momentu egokiena, eta esperientzia moztu egin zen sei urte beranduago, 1978an.

Hala ere, jende asko joan zen proiektua ikustera eta *La escuela que pudo ser* liburuan bilduta gelditu zen esperientzia hura.

Durangotik Donostiara pasa zinen, eta hango ideiak eta proiektua ekarri zenituen Amara Berri eskola publikora. Nolakoa izan zen hasiera hura?

Ikuspegi hartatik abiatuta, Haur Hezkuntzan esperimentatzen hasi nintzen, Durangon egindako lana O-HOn burutu baitzen. Urte haiek ahaztezinak izan ziren. Niretzat paregabe ko unibertsitatea izan zen; hainbeste ikasi nuen, hainbeste jakinduria, askatasun eta maitasun deskubritu nuen izaki ttiki haiengan... ez dakite zenbat zor diedan! Garai hari "aurre-ikerketak etapa" deitu nion.

Pixkanaka taldea osatzen joan zen eta irakasleak inplikatur joan zi-

ren heinean, esperimentazioa aurreratu joan zen, ziklo eta etapa desberdinetara zabalduz. Hiru urte pasa genituen maila bakoitza garatzeko; bat martxan jartzen, beste bat sakontzen eta hirugarrena esperientzia orokortzen. Eta oraindik ere lan handia dago egiteko.

Anonimatuan hasi nintzen, baina ezin izan nion egoera hari luzaroan eutsi... Jende asko etortzen zen ikustera, atea irekita edukitzen bainituen. Nik betidanik esan izan dut eskolako atea irekita eduki behar direla, elkarri lagundu behar diogun profesionalak baikara. Garrantzitsuena ez baita lanean gabiltzan zentroa ondo joatea, eskola orokorrean ondo joatea baizik.

Zein motatako jendea hurbiltzen zen esperientzia ezagutzera?

Orain hurbiltzen denaren antzekoa, erantzun bila datozen profesionalak eta erakundeak, esku artean daukatena zalantzan jarri eta aurrera egiteko borondatea dutenak. Haiekin iritziak kontrajartzeko eta beraien ekarpenak jasotzeko aukera paregabea izan dugu. Ziur gaude kritika la-





Betidanik
esan izan dut
eskolako ateak
irekita izan
behar direla,
elkarri lagundu
behar diogun
profesionalak
baikara.
Garrantzitsuena
ez baita lanean
gabiltzan
ikastetxea ondo
joatea, eskola
orokorrean ondo
joatea baizik

guntza gisa egiten bada, aurreratzeko bide dela, eta guretzat izugarrizko ikasketa da.

Zer da pertsona horiek Amara Berrira bisitaldia egiten dutenean gehien baloratzen dutena?

Bisita motaren arabera, baina orokorrean deigarriena ikasleen autonomia, ardura maila eta irakaslea aurrean ez egon arren ikasleek lan egiteko adierazten duten gaitasuna da. Baita ikastetxearen izaera bere globaltasunean, hau da, hezkuntza asmoa, gehi praktika bere ezaugarri metodologikoekin, gehi formazioaren edo antolaketaren artean dagoen koherentzia. Bestalde, irakasleak ikasleekiko duen egiteko erak edo esku-hartzeak harritzen ditu, bakoitzarekiko duen arretak, non ezberdintasuna kualitatetzat hartzen den eta ez eragingarri bereiztaile bezala. Konturatzen dira ezinezkoa dela hori guztia aurrera ateratzea atzean lan talde sendorik eduki gabe.

Esango al diguzu zein den aipatu duzun hezkuntza asmoa?

Hezkuntza asmo hori ikastetxeko helburu orokorretan eta metodologia printzipioetan laburbildurik dugu. Harnasten dugun airea bezalakoa



izan dadin

nahi dugu. Adibidez: uneaz eta orainaz gozaten jakitea; pertsonak direnagatik baloratzea eta ez dutenagatik; ideiak defendatzeko, argudiatzeko eta aldatzeko gai izatea eta abar. Lehenago beste batzuk aipatu ditut, ikasleen antolaketari buruz hitz egiterakoan: asanbladak, zerbitzuak...

Helburu horiek ikasleentzako ez ezik, eskola elkarte osorako ere, norberaren eta taldearen hazkundetzat jotzen ditugu. Inoiz eskuratu ez ditugun ikasketa sakonak dira.

Eta praktika, nola gauzatzen da? Zeinezaugarri ditumetodologia honek?

Ez dugu gai edo ikasgaika programatzen, lehen aipatu dudana bezala,



bizi jardueraka baizik, arloak bata bestearekin harremanetan jarriz, kontestu sozial, egonkor eta osagarriak derizkiogunak.

30 kontestu sozial, bizi jarduera edo jolas dago ziklo bakoitzean (komertziala, auzoa, bikoizketa eta a-bar), departamentu edo gela bakoitzeko lau inguru, eta beste batzuk orokorrakoak (ikasleen asanbladak, zerbitzuak...).

Zein da programazio honen ekarpena?

Ikasleei buruzko kontzepzioaren kontzientzia. Kontestu sozialak antolatzen ditugu harreman sozialak sorrarazten dituztelako. Elkarreragin horretan bakarrik, kontzeptu eta emozio eskemak aurreratzen dira.

Kontestu horiek egonkorak dira ziklo osoan aldatzen ez direlako, eta honela ikasleak eskemak bilatzen doazen heinean, behin eta berriz eta sistematikoki kontestu horietatik pasaz, kontestu bakoitzak ahalbidetzen duen ezaguera multzoan sakonduz joan daitezke. Eta bestetik osagarriak ere badira, ziklo eta ziklo arteko departamentu ezberdinetan egiten diren ikasketa eta garapen prozesuen arteko osagarritasuna aztertua dagoelako.

Zenbaitetan irakasleok pentsatzen dugu guztiok berdin programatu eta ebaluatu behar dugula, eta hori ez da horrela. Garrantzitsuena hezkuntza proiektuak adierazten duen asmoarekin koherentziaz programatu eta ebaluatzea da.

Ba al ditu metodologia honek berezko beste ezaugarri batzuk?

Bai, badira beste ezaugarri batzuk. Zikloko programarekin egiten da lan, bi urtetan garatua eta adin ezberdinetakoak elkarturik.

Ikasle talde bakoitzarekin irakasle bat baino gehiagok lan egiten du.

Ikasleek egunean zehar departamentuan lantzen dituzten jarduerak guztiak badute beren "zertarakoa", irrati, prentsa, telebista, erakusketa eta eskola barruko ikuski-

zunen bidez bideratzen dena.

Ezaugarri horietako bakoitzak eta beste kontzeptu batzuk, jolasa, askatasun printzipioa, indibidualizazioa, eta sormena besteak beste, ikastetxe-ko egituretan sortzen diren garapen teorikoen oinarri dira eta ikastetxearen eite kulturala osaten dute.

Zein dira antolaketa modu horiek?

Antolaketa oinarriko estrategia da esku-hartzea bultzatzeko, eta formazio eremutat hartzen dugu. Gure ustez, edozein antolaketa moduk ez du gauza bera sortzen.

Badira ikasleei dagozkien antolaketa moduak: asanbladak, zerbitzuak eta gela edo departamentuko kontestuak.

Eta noski, proiektuaren antolaketa sistematizazio hori guztia aurrera ateratzeko, irakasleen antolaketak ere garrantzi handia du. Honako egituretan gauzatzen da: klaustroa, bilera pedagogikoa, sektorea, zikloa eta mintegiak.

Klaustroan irakasle guztiak hartzen dute parte antolaketa edo kudeaketa gaietan aritzeko. Bilera pedagogikoetan ere irakasle guztiak parte hartzen dute gai pedagogikoei heltzeko. Sektorean ikasle berberekin lan egiten duten irakasleak elkartzen dira bakoitzaren jarraipena egiteko eta esku-hartze estrategiak planifikatzeko. Zikloan bertan aritzen diren irakasleek alderdi funtzionalak landu, erabaki eta antolatzen dituzte, ikastetxearen ikuskeran oinarrituriko irizpideak erabiliz. Mintegietan arlo baten inguruan lanean jarduten duten irakasleak curriculumaren faseak jorratzeko elkartzen dira.



Zer zehazten da curriculumaren fase horietan?

Lehenengoan espazioak, denborak, baliabidea, lan metodoa, "zertarakoa" edo jardueraren irteerak antolatzen dira. Bigarrenean edukiak, helburuak eta testuinguruen edo jardueren zehaztapena eta mailakatzea egiten da. Sistematizazio lan sakona egiten da ikasleei joko modura azaldu arien. Hirugarrenean ikasleen jarraipena, esku-hartzea, ikasketen ebaluazioa eta ikasketa horien aurreiritziak lantzen dira.

Dena dela, proiektuaren oinarrian dagoen sistematizazio horrek ez al du malgutasuna murrizten? Dena hain zehaztuta egonik, aldaketak egiteko aukerarik uzten al du?

Sistema honen oinarrian ikaslea pertsona bezala hartzen da. Bere beharrei erantzunez garapena ahalbidetzen zaio. Horrek irakasleoi konpetentzia eta profesionaltasuna eskatzen dizkigu ea sistematizatzeko talde lana ezinbestekoa da. Sistematizatzea



Gure
sisteman
bizkarrezurra
eta
koherentzia
ikusten dute
Amara Berrira
etortzen
direnak, eta
hori da baloratu
eta eskatzen
dutena

irakasleak bere zereginean hausnartzea eta egitura guztietan parte harturik konpetentziaz janztea besterik ez da. Sistema irekia denez, sekula ez da amaitutzat ematen eta beti berrinterpretatu daiteke.

Baina egia esan, badago gurea ez den beste pentsamolde eta egiteko era, non norberak bere gelan nahi duena egin dezakeen, 60. hamarkadan gertatu ohi zen bezala.

Amara Berrin bere haurra matrikulatzen duten gurasoek argi dute proiektu batean hezi nahi dutela, eta ondorioz, irakasleei konpetentzia eta erantzukizuna eska diezaieketela.

Zer esan nahi duzu antolaketa formazio eremuak direla diozunean?

Egitura ezberdinetan parte hartuz, etengabeko kontrastaketan, gure kontzeptu eta jarrerazko eskemak bilakaera izaten dute, eta hori da formatzea.

Formazioari buruz zera uste dugu: norberak bere interes edo beharren arabera autore edo ildoren bat azter de-

zakeela, hori norbanako aukera baita. Baina ikastetxeko eta taldean egindako formazioa, ekarpenak egitea, jasotzea, kontrastatzea, berrinterpretatzea eta praktika zehaztea izango litzateke. Hots, formatzea, aurreratzea eta eskolaren eite kulturala osatzea, betiere berrinterpretazio berrietara irekia.

Urte hauean ikusi duzunaren arabera, erraza suertatzen al zaie irakasle berriei sistemara egokitzea eta bertan inplikatzeko?

Bai, poliki-poliki joaten dira egokitzen, bakoitza dagoen lekutik abiatuta eta bere erritmoan. Eta hori da nik berandu ikasi dudana gauzetako bat. Nik, lehen, gauzak denek aldi berean egitea nahi nuen, eta hori ezin dela ikusi dut. Norberak deskubritu behar du egin behar duena, norberak iritsi behar du horretara dagoen lekutik abiatuta. Bakoitza dagoen lekuan dago, eta ez guk nahi dugun lekuan. Ni ere ahal dudana lekuan nago, eta ez besteek nahi duten lekuan. Orduan,

hori aintzat hartu behar dugu aurrera jotzeko.

Horregatik, batzuei gehiago kostatzen zaie sisteman integratzea eta gauzak ulertzea, eta beste batzuei gutxiago. Ikasleekin gertatzen den gauza bera pasatzen da: bakoitza ahal duen erritmoan joaten da.

Dena den, oso prestatua dagoen jendea dago eta gehienak edo denak egiten duten lanarekin konbentzitu daude. Jendea inplikatu egiten da eta berehalaz sartzen da taldean. Iristen diren irakasle berriak berehalaz konturatzen dira beraiek bakarrik ezin dutela ezer egin, askoz ere gehiago ikas dezaketela besteekin batera, taldean.

Zein oztoporekin aurkitu zarete zuen sistema aurrera ateratzeko garaian?

Asko izan dira, bizi osoan zehar ilusioekin batera gatazkak izaten ditugulako. Niri gaitzeta asko kostatzen zizkidan oztopo bat zera izan zen: LOGSEren erreformaren ondoren, E-AEko eskola publikoetan Lehen eta Bigarren Hezkuntza banatu egin ziren, zentro independenteak eratuz. Ondorioz, Amara Berri Lehen Hezkuntzarekin bakarrik gelditu zen. Gure proiektua gaur egun Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa den mailara arte garatua zegoen eta Batxilergoan ere esperimentatzen hasiak geunden. Erreformatan, ordea, Haur eta Lehen Hezkuntzarekin soilik utzi gintuen. Asko kostatzen zizkidan horrelako aurrerakadaren ondoren atzerapausoa ematea. Baina gauzak gertatu egiten dira eta horrek ere hazten laguntzen digu.

1990. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Hezkuntza Berrikuntzarako Ikastetxea izendatu zuen Amara Berri eta 1995ean Ikerketa eta Saiakuntza Ikastetxea. Zer ondorio izan ditu horrek?

Ikerketa eta berrikuntzarako eginkizunak ofizialki eman zitzaizkion, eta era berean, sistema eta metodologia honetan prestatu nahi duten ikas-

tetxeei formazioa emateko aukera ere bai, besteak beste.

Benetako ondorioa ordura arte burutzen zen guztia egiten jarraitu izana da, baina onarpen ofizialarekin.

Beste ikastetxeei eskaintzen diezuen formakuntzak zer berezitasun dauka beste ikastaroekin konparatuz gero?

Formazio plana dugu, ikastetxearekin bere osotasunean heltzen diona, eta honako esku-hartze eremuetan garatzen da: zuzendaritza taldeen formazioa, gela edo zikloetako behaketa, ikastaroak, bisitaldiak Amara Berrira eta behar denean ikastetxeetako klastroetako parte-hartzea.

Formazio hori ez dator bat ikastetxearekin bere osotasunean hartu gabe alderdi isolatuak garatzen dituen formazioarekin.

Zergatik uste duzu izan duela horrelako arraskata eta jarraipena Amara Berriko Sistemak?

Ikastetxea beti irekita eduki dugulako eta ikusi dutenei gustatu egin zaielako. Jende arduratsu asko etorri izan da, eta aurreratu eta eboluzionatzeko nahia agertu dute.

Ziur beste batzuk guk baino askoz



e-re lan gehiago egin dutela, baina proiektu partzialekin, horrela orientatu zaielako. Askotan dena lotzen duen bizkarrezurra falta izan zaie, eta lan handia eginagatik, ez dute fruiturik ikusi. Gurean, berriz, bizkarrezurra eta koherentzia ikusten dute, eta hori da baloratu eta eskatzen dutena.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Etorkizunari begira lasai nago, bestela ez nintzen jubilatuko. Irakasle talde sendoa geratu da, profesionala, bere lanean sinesten duena, taldean lan egiten duena eta ikasleentzako onenaren bila dabilena. Lan talde sortzailea eta egunero ikasi eta hazteko prest dagoena.



E sperientzia

Nolako ikaslea halako lana

Zer behar du? Hori eman nahi diot

Patxi Sanjuán

Iruñako Biurdana Institutua



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleok askotan tresna sinple eta errazak behar izaten ditugure lana antolatzeko. Laguntzaileak baldin badauzkagu ere (ikasle batentzako lehendabiziko errefortzuak, curriculum egokitzapenak edota beste laguntzak), egin eta bideratu behar ditugunean, bakarrik gaude.

Ikasle desberdinei aukera berdinak emateak ikasleak desberdin tratatzea dakar. Ikasle desberdinak berdin tratatzen baditugu, aurrera egiteko aukerak murriztu egiten dizkiegu.

Hasieratik bertatik laguntza ongi antola ahal izateko, hausnarketa egiteko tresna sinple bat aurkezten dizuegu hemen.

Egoera Lidergoa (Hersey eta Blanchard) delako ereduarekin lan egiten saiatuko gara.

Ikasleengan eragina izateko eta lideratzeko modu konkreturik ez dago. Lidergo estiloa batzuetan ona izan daiteke eta beste batzuetan txarra. Kontuan hartu behar duguna honako hau da: ikasleak lan konkretu bat egin behar duenean adierazten duen heldutasun maila. Heldutasun maila horren arabera emanen diogu trataera bat edo bestea.

Ikaslearen heldutasun maila

Ikasleak daukan heldutasun maila ezagutu behar dugu. Beraz, hori diagnostikatzea izanen da egin beharko dugun lehendabiziko lana. Horri hasierako ebaluaketa deitzen ahal diogu. Lan konkretu bat egin behar duenean, ikasleak adierazten duen heldutasun maila ezagutzen saiatuko gara.

Ikaslearen heldutasun maila diagnostikatzeko bi aldagai hartzen ditugu kontuan:

a) **Ahal izan:** jakinduria, esperientzia, abilezia, badaki, egiteko gauza da.

b) **Nahi izan:** motibazioa, segurtasuna, konpromisoa, egin nahi du, segurua ikusten du bere burua.

Ikaslearen heldutasuna (beti lan konkretu bat egin behar duenean) bi aldagai hauek elkartzuz atera dezakegu, hala nola:



| | | | | |
|-------------------------|--|---|----------------------------------|--|
| Posible du? | Bai | Bai | Ez | Ez |
| Nahi du? | Bai | Ez | Bai | Ez |
| | Egiteko gauza da. Nahi du | Egiteko gauza da. Ez du nahi edo ez du ziurtasunik. | Ez da egiteko gauza. Nahi du. | Ezin du Ez du nahi |
| Heldutasun maila | Maila 4 Heldutasun handiena | Maila 3 | Maila 2 | Maila 1 Heldutasun txikiena |

Heldutasun maila bakoitzari tratara desberdinak eman behar dizkio irakasleak. Lidergo estiloa zehazteko, irakasleak erabili ditzakeen bi jokoera mota gurutzatuko ditugu.

Irakaslearen jokoera motak

a) Lan jokoera:

- Helburuak ongi definitzen ditu.
- Egin beharreko lana ongi zehazten du.

- Ongi egiteko arauak, nola egin, noizko... zehazten du.

- Beharrezkoak diren azalpen guztiak ematen ditu.

- Norabide bateko komunikazioa: irakasleak ikasleari.

b) Harreman jokoera:

- Bi noranzko komunikazioa, atzerelikadura: irakasleak ikasleari eta ikasleak irakasleari.

- Aktiboki aditu.

- Laguntza emozionala.

- Laguntza jokoera.

- Motibazioa...

Bi jokoerak elkartuz lau estilo ikus ditzakegu. Estilo bakoitza mesedegarriagoa edo kaltegarriagoa suerta daiteke heldutasun maila desberdina duten ikasleei aplikatzen bazaie. Une batean ona izan daiteke, eta beste une batean txarra. Horregatik, egin beharreko lana beti kontuan hartuko dugu.

| | | | | |
|--|----------|------------|-------------|--------|
| Lan jokoera | Gutxi | Gutxi | Asko | Asko |
| Harreman jokoera | Gutxi | Asko | Asko | Gutxi |
| Irakasleak ikasle konkretuarekin izan den estiloa | Delegatu | kolaboratu | Konbentzitu | Gidatu |

Gauza hauek guztiak kontuan hartu ditugu ematen dizuegun koadro txoa osatzeko. Iritzi guztiak behar-beharrezkoak direla erran behar dizuegu. Ongi uler dezagun, zutabe bakoitzean ongi ezagutzen dugun ikaslea kokatzeak lagun dezake. Ikaslearen

heldutasun maila zehazteko interesgarria da, hasieran behinik behin, irakaskide batekin diagnostiko egitea.

TAULA (32. orrialdea)

Taula handi horretako edukia beheko honetan laburbiltzen da.



| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ikaslea | Egiteko gauza da. Nahi du | Egiteko gauza da. Ez du nahi | Ez da egiteko gauza. Nahi du. | Ez da egiteko gauza. Ez du nahi |
| Irakasleak erabili beharreko lidergo estiloa | Delegatu | kolaboratu | Konbentzitu | Gidatu |
| Irakaslearen jokaraz | Lan jokoera txikia Harreman jokoera txikia | Lan jokoera txikia Harreman jokoera handia | Lan jokoera handia Harreman jokoera handia | Lan jokoera handia Harreman jokoera txikia |

Aniztasunarekin lan egin. Irakaslea ikasle desberdinen aurrean

| Maila | 1.- Egiteko gauza da. Nahi du | 2.- Egiteko gauza da. Ez du nahi. | 3.- Ez da egiteko gauza. Nahi du. | 4.- Ez da egiteko gauza. Ez du nahi |
|---------------|--|---|--|--|
| ADIFERAZILEAK | <p>Egiteko gauza da</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasprozesuak burutzen ditu. - Aurrera doa. - Sortzailea da. - Arazoak ebazterakoan bide bat baino gehiago aurkitzen ditu. - Lanak normalki ongi eginak ditu. - Buru malgutasuna du - Bere ikaskideek berarekin lan egin nahi dute. - Inbertsioaren eta errentagarritasunaren arteko oreka | <p>Egiteko gauza da</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egiten duenean ongi egiten du. - Sortzailea da - Alorren batean emaitza onak ditu. - Azterketetan (denetan edota batzuetan) emaitza onak. - Lehenago (Lehen Hezkuntzan, adibidez) emaitza onak. | <p>Ezin du</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurrerapenik ez. Aurrerapen txikiak. - Ez da sortzailea. Guxi sortzen du. - Malgutasun eza.. - Lanak ongi egin gabeak. - Besteen arriketak kopiatzen ditu (ongi edo gaizki). - Ez du ulertzen suspentzidun dugunean, "berak egin baitu". - Inbertsioaren eta errentagarritasunaren arteko desoreka. | <p>Ezin du</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez du aurrerapen handirik. - Ez da sortzailea. Malgutasun eza. - Lan gutxi entregatzen du, eta hortiek ongi egin gabe. - Inbertsio txikia. - Lanik ez. |
| ADIFERAZILEAK | <p>Nahi du</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurrea jartzen du. - Parte hartzen du. - Lanak garaiz ematen ditu. - Puntuala da. - Ikasle adetsua da. - Langilea da. | <p>Ez du nahi</p> <ul style="list-style-type: none"> - Molestatzen du. Batzuetan anitz. - Axolagabekeria bere lanetan. - Puntualitate arazoak. - Errespetu gutxi edo ezer ez - Alferra. Inhibituia. - Piper egiten ditu. - Hiperaktiboa edo hipoaktiboa. - Ikas saioen artean denbora galtzen du. - Distorsio kognitiboak. | <p>Nahi du</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez du molestaitzen. - Kasu egiten du. Ez du ulertzen. - Parte hartzen du, baina emaitzarik ez. - Puntuala, esanekoa.. | <p>Ez du nahi</p> <ul style="list-style-type: none"> - Molestatu egiten du. - Ez du kasurik egiten. - Ez du ulertzen. - Borroak. Baliteke enfrentamenduak izatea. - Baliteke 'altzari bezala egotea'. - Ez du parte hartzen. - Lanak egiteko baztertua dago. |
| ADIFERAZILEAK | <p>Nire galderak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eduki gehiago ematea merezi al du? - Gaia aurreratzea merezi al du? - Zer eman dezake ikasleak klasea eta bere ikaskideak aurrera joan daitezen? - Zer menperatzen du? - Zer helburu eta eduki indartuko ditu? - Metodologia aldaketarik? | <p>Nire galderak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nahi ez izate hau berria al da? - Bere interes barruan sartu al naiz? - Bere ZDP delakoan sartu al naiz? - Kanpoko arazorik? Familia? Errazioak? - Problema emozionalik? - Behin-behineko krisialdirik? - Interferentziarik? Giza bebeziarik? - Beldurrik? Motibaziorik? Porrot pilatua? - Zer daki eta zer egiten du? - Zein da nik daukadan iritzia ikasle honetaz? - Zer helburu eta eduki indartu behar ditu? - Metodologia aldaketarik? - Aurrerapenak egiaztatzeke zer adierazle erabiliko dut? | <p>Nire galderak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elbarritasunen bat ote du? - Informaziorik ba al dago ikastetxean? - Ezintasun funtzionalik ba ote du? - Zer trebezia daude "ukituta"? - Zein da bere abiapuntua? - Pronostikoa? - Zer daki eta zer egiten du? - Zein da nik daukadan iritzia ikasle honetaz? - Zer helburu eta eduki indartu behar ditu? - Metodologia aldaketarik? - Aurrerapenak egiaztatzeke zer adierazle erabiliko dut? - Diagnostiko sakonagoa egin beharrik ba al dago? | <p>Nire galderak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elbarritasunen bat ote du? - Informaziorik ba al dago ikastetxean? - Ezintasun funtzionalik ba ote du? - Zer trebezia daude "ukituta"? - Zein da bere abiapuntua? - Nahi ez izatea ezintasunean oinarritzen al da? - Zer daki eta zer egiten du? - Zein da nik daukadan iritzia ikasle honetaz? - Pronostikoa? - Zer helburu eta eduki indartzen ditu? - Metodologia aldaketarik? - Aurrerapenak egiaztatzeke zer adierazle erabiliko dut? - Diagnostiko sakonagoa egin beharrik ba al dago? |
| ADIFERAZILEAK | <p>Laguntza mota. Irakaslearen jokaera</p> <p>Lan jokaera txikia. Harreman jokaera txikia. Delegatu., behatu., fidatu, lanak eman eta utzi.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Materialak erraztu. Orientazio minimoak. - Lan autonomoa. Guxienerako jarraipena. - Bakean utzi. - Zenbait kasutan urte bat aurreratu. - Egokitzapen esanguratsurik beharko al du? | <p>Laguntza mota</p> <p>Lan jokaera txikia, Harreman jokaera handia. Parte hartu, kolaboratu, erreformatu eman.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berarekin hitz eginen dut. - Motibatu egingo dut. - Hasieran lan egingarriak ematen dizkitot eta indartu egingo dut. - Jarraipen pertsonalizatua. - Laguntza emozionala. - Emaitzen balorazioa. - Egokitzapen esanguratsurik beharko al du? | <p>Laguntza mota</p> <p>Lan jokaera handia. Harreman jokaera handia. Kontrentzitu, kontsultatu, adierazi, saldu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Motibatu egiten dut. - Lan konkretua ematen diot, argia eta ongi adierazia. - Lan errazak, egokituak. - Bere aurrerapenaren berri ematen diot ikasleari - Egokitzapen esanguratsurik beharko al du? | <p>Laguntza mota</p> <p>Lan jokaera handia eta harreman jokaera txikia. Zuzendu, gidatu, adierazi.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aginte konkretuak ematen dizkitot. - Adierazpen garbiak eta errazak. - Lanak eskatu. - Lan motzak. - Eskakizun konkretuak. - Emaitza neurgarriak. - Egokitzapen esanguratsurik beharko al du? |

Zerbait jardunaldi
pedagogiko antolatu
dira

Ikastolen Elkarteak,
Mondragon unibertsita-
tateak eta Bilboko CEI-
IDK zerbait jardunaldi
pedagogiko antolatu
dituzte.



Berriak otsaila

Au amendi Entzi- klopedia Internetetik erretiratu da

Eusko Ikaskuntzak Auñamendi Hiztegi Entziklopegia Internetetik erretiratzeko erabakia hartu du.

Urtarrilaren 3az geroztik ezarri zen Interneten Eusko Ikaskuntzak Eusko Jaurlaritzarekin, Kutxarekin, BBKrekin eta Vital Kutxarekin sinatutako hitzarmenaren ondotik.

Eusko Ikaskuntzak zabalduko prentsa oharrak dio "oraingoz, Hiztegia Internet sarean kontsultatzeko aukera bertan behera uztea erabaki du Eusko Ikaskuntzak, orrialde zaharrenak edo zaharkituak daudenak zuzendu arte behintzat". Bertan ez da ezer esaten Nafarroako Gobernuak Elri diru laguntza kentzeko eta hitzarmenik ez sinatzeko hartutako erabakiari buruz, nahiz eta horren berri jakin ondoren erretiratua izan Hiztegia saretik.

Nanai aldizkaria, Euskal Herriko haurrentzako bigarren aldizkaria

Euskal Herriko haurrei zuzenduriko bigarren hilabetekaria kaleratu da. Orain dela gutxi Pika aldizkariaren argitalpenari buruzko berria jaso genuen, eta hura bezala, Nanai ere somatzen zen hutsunea betetzera dator.

Ikas Bi elkartearen ardurapean hilero kaleratuko da 5-8 urte bitarteko haurrei zuzenduriko aldizkari hau. Komikiak, jokoak, sukaldeko errezetak, pegatinak, eskulanak, erreportaia eta ipuinak izango ditu bere 42 orritan.

Nanai Toboggan aldizkarian oinarritzen da, hau da, haren jatorrizko edizioaren itzulpena izanen da. Arduradunek azaldu-takoaren arabera, jatorrizko aldizkariaren kalitate bera eta prezio apalagoa ditu Nanaiak.

Arduradunek 6.000 ale saltzeko asmoa dute, eta horietatik 5.000 Hego Euskal Herrian. Harpidetza bidez eta kioskoetan salmenta oso altua izaten ez denez, Hego Euskal Herriko Guraso Elkartearen laguntza izango dute hilabetekaria ikastetxeen bidez banatzeko.

Aldizkariaren kostuari dagokionez, bi herenak diru publiko-koz ordainduko dira. Horietatik %90 Eusko Jaurlaritzak ordainduko du, hots, 650.000 libera (16,4 milioi pezeta). Akitaniako eskualdeak 75.000 libera (1,9 milioi pezeta) emanen ditu. Bi laguntzak urte baterako izango dira. Eta gainerako dirua salmenten bidez ateratzeko asmoa dute.



Txirulaz CDak txirula beste instrumentuen laguntzaz jotzeko aukera ematen du



Paristik ratorren artista bat raiz ni.
Ondo jotzen dut.
Baita guk ere.
Txirula nik jotzen dut.
Firiri-firiri, firiri-firiri

Paristik ratorren artista bat raiz ni.
Ondo jotzen dut.
Baita guk ere.
Gitarra nik jotzen dut.
Grin-grin-grin, grin-grin-grin
Firiri-firiri, firiri-firiri

Paristik ratorren artista bat raiz ni.
Ondo jotzen dut.
Baita guk ere.
Danborra nik jotzen dut.
Dram-dram-dram, dram-dram-dram
Grin-grin-grin, grin-grin-grin
Firiri-firiri, firiri-firiri

Zenbat aldiz abestu ote dugu kanta hau? Instrumentu batekin hasi eta orkestra handi bat osatzeraino iritsiko ginen behin baino gehiagotan. Baina gauza bat abestea da, eta beste bat instrumentuak jotzea. Bigarren kasu honetan zailagoa izan ohi da musikatresna ezberdinak jotzen dituen jendea biltzea. Bistan da askoz ere aberatsagoa, politagoa eta osatuagoa dela taldean jotzea bakarka jotzea baino, eta talde hori instrumentu ezberdinak jotzen dituen jendeak osatzen badu, askoz ere hobe.

Zer egin dezakegu, ordea, horre-

lako talde batean jotzeko aukerarik ez baldin badaukagu edo taldeko guztiok instrumentu berdina jotzen baldin badugu? Txirulaz CDa galdera horri erantzuna eta irtenbidea ematera dator. Abestien doinuak entzun eta txirulaz jotzeko aukera ematen du, baina beste hainbat instrumenturen laguntzarekin.

CD honetan 16 abesti topatuko dituzu, bakoitza baldiz errepikatuta. Ez dainor abesten entzuten, instrumentuak entzuten dira, musika hutsa, alegia. Lehenengo aldi abesti bakoitzean txirula, pianoa, perkusioa, gitarra, klarineta, tronpeta eta beste hainbat instrumenturen doinuak entzuten dira. Bigarren aldi, aldiz, abesti doinu bakoitza txirularik gabe agertzen da, hau da, beste instrumentu guztiak entzuten diren bitartean txirularik ez da aditzen. Orduan, bigarren kasuan txirula hartu eta zuk zeuk jo dezakezu, zu zeu izan zaitezke falta den txirularia. Beste instrumentu guztien laguntza hor izango duzu CDan. Horrela, ez zara zu bakarrik izango abestiak jotzen dituen.

Dena dela, gelan eta taldean lantzeko aukera ere eskaintzen du. Dena txirula jotzearekin batera, atzean beste instrumentuen babesa eta laguntza edukitzeak emaitza aberastu eta giroa bete egiten du, dudarik gabe.

Kaleko musikari asko entzun eta ikusi besterik ez dago. Instrumentu bakarra jo arren, atzean horrelako laguntzarekin doinu atseginak, bi-ziak eta erakargarriak entzuten dira. Kale osoa pizten eta bizitzen dute musikariok. Eta guk gauza bera egin behar dugu Txirulaz CDarekin.

CDan biltzen diren 16 abestiak Txirulaz I eta Txirulaz II liburuetan agertzen dira, eta beraz, partiturak eskura daude. Guztiak herrikoiak edo ezagunak dira: Katargorria, Binbili bonbolo, Uso zuria, Pintto, Ama begira zazu, Astoa ikusi nuen, Ardoa edanda, Maite, Bat, bi, hiru, lau, Nere herriko neskatxa maite, Aldapeko, Olenzero, Hator, hator, Titanic, Negro Jose eta Yellow submarine.



Berriak

Argitalpenak



Gustura idatziz

Irune Ibarra
Ibaizabal
125. orr.

Irune Ibarra psikologo eta grafo-
logoak idazketaren ergonomia eta
genetikaren inguruko hainbat galdei
erantzuten die. Idazkera harmoni-
koa ahalbidetzeko idazlearen eta i-
dazteko behar dituen tresnen arteko
egokitasuna bilatzeko aholkuak e-
maten ditu. Ezkertien berezitasunak
ere kontuan hartzen dira. •



Tigre birtuala

Josu Lartategi
Aizkorri
60 orr.

“Hegan” bildumako liburu hone-
tan protagonista Arroba (@) da. Bere
bizitza erreala eta birtuala dira kon-
takizun honetako ardatz. Bilduma
honetako gainontzeko liburuak be-
zala, euskara ikasten ari direnentzat
egokitua dago: orrialdeen behealde-
an hiztegitxo bat agertzen da, eta li-
buruaren amaieran irakurgaia lan-
tzeko ariketak. •



Irakurriko al didazu ipuin bat, mesedez?

Penny Dann- Manuel Arregi
Ttartallo

Liburu honetan 17 ipuin kon-
tatzten dituzte Igel, Xagu eta Aha-
tek. Igelek 2 minutuko ipuinak
kontatzen ditu, Xaguk 5 minutu-
koak eta Ahatek 10 minutukoak.
Iraupen desberdineko istorioen
bilduma da liburu berri hau, eta i-
lustrazioa bizi eta koloretsuz alai-
turik dago. •



Potoloa naiz, eta zer?

Seve Calleja
Elkarlanean
28 orr.

“Eta zer?” bilduma berri honetan
haurrek dituzten hainbat arazo eta
konplexu agertzen dira, eta horiei ir-
tenbidea ematen saiatzen dira. Kasu
honetan, gizentasunaren alde positi-
boak agertzen dituzte. Haur potoloa
izan arren, ez duela axola eta horrek
ere bere abantailak badituela adie-
razten saiatzen da liburu hau. •



“Memoria del camino del destierro” hezkuntza proiektua

Burgoseko Comunereros de
Castillaeta Andoaingo Leitzaran
institutuak

207 orr.

1998-99 ikasturtean Burgoseko e-
ta Andoaingo bi institutuk proiektu
didaktiko interdiziplinar batean har-
tu zuten parte. Aitzakia Cid-en herio-
tzaren 900. urteurrena izan zen. Lan
harekin bi kulturen arteko ezagutza
bultzatu nahi izan zuten. Esperien-
tzia hura biltzen da liburuan gaztela-
niaz (gehiena) eta euskaraz. •

Takolo, Pirritx eta Porrotx Nikaraguako ikasleen artean dabilta

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak Nikaraguako hurrei Parrandan ikuskizuna eskaintzen dabilta egun hauetan. Euskal jaiaren alaitasuna zabaltzen ari dira, hango haurren abestiak eta jolasak ezagutzearekin batera. Honek erakundeko eta Hik Hasi-ko kideak ere beraiekin batera dabilta bidaiari honetan.

Urtarrilaren 23an joan ziren Euskal Herritik Nikaraguara, eta bidaiari honekin aspaldian buruan zebilkiten proiektu bat gauzatzen ari dira. Honek erakundea (Herri Oinperatuekin Nazioarteko Elkartasunerako Kideak) 80. hamarkadaz geroztik dabil Elkartasunaren alorra lantzen Ertameriketara, eta batez ere Nikaraguan. Bere ekimenaren ondorioz hainbat proiektu bideratu eta jarri dituztenak: eskolak, nekazal eta abeltzantza kooperatiba txikiak, eraikuntza, aroztegi, latorritegi eta abarretako kooperatibak... Eskolei, haurrentzako harrera zentroei, haurrentzako jangelei, osasun zentroei, herri instituzioei eta abarri laguntza eman izan die. Horrekin batera, Honek erakundea sentsibilizazioarekin kezkatuta dago, eta horren aldeko kanpainak, hitzaldiak, erakusketak eta abar egin dituzte Euskal Herrian. Ildo horri jarraiki, iaz Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldearekin batera bi jaialdi egin zituzten "Los Quinchos" haur eskoletarako laguntza lortzeko.



Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldea, Honek eta Hik Hasi-ko kideak bidaiari inguruko prentsaurrekoa eskaini zutenean.

Jaialdiaren ostean, Honekek eta pailazo taldeak ikuskizuna Nikaraguara bertara eraman zezaketela pentsatu zuten, hau da, hango hurrei zuzenean eskaini ziezaietela beren ikuskizuna.


Horretan dabilta egun hauetan Nikaraguan, hain zuzen ere. *Parrandan* ikuskizunarekin euskal jaiaren alaitasuna zabaltzeko dagoeneko Telpanecan, Somoton, Estelín, Ocotalen eta Cusmapan. Herri hauetako hurrei euskarazko dantzak eta kantak abestu dizkiete. Hitz egiteko garaian gaztelaniaz mintzatu dira, baina ez hemengo gaztelaniaz, nikaraguarren hizkera berezian baizik, hau da, bertakoen hitz eta esamoldeak erabiliz. Umerez eta alaitasunez bustitako abesti, jolas eta dantzen bitarteko sortu den komunikazioan haur nikaraguarrek ere beren alaitasuna, irudimena eta bizitasuna transmititu dizkiete beren olerki, abesti eta jolasekin. Pailazo taldea haur horiekin gauza asko ikusten eta ikasten ari da, eta Euskal Herrira itzultzen direnean hori guztia erakutsiko dute. Batetik 15 minutu inguruko bideo bat egingo dute haur nikaraguar baten egun bat nolakoa den azalduz. Eta bestetik,

hurrengo diskoa eta ikuskizuna Nikaraguako jolas eta abestietan oinarrituko da.

Hurrengo egunetan Managuara joango dira. Hango Guachipilin antzerki taldearekin batera euren tailetan parte hartuko dute. Managuako zabortegira ere joango dira, han bertan bizi diren 800 familiei eta handik ateratzen dutena komertzializatuz bizi diren beste 1.600 pertsonen musika eta alaitasuna eraman asmoz.

Hik Hasi hango hezkuntza errealtatea ezagutzen

Hik Hasi bidaiari honen eta pailazoaren ikuskizunaren lekuko zuzena izaten ari da. Baina horretara mugatu gabe, Nikaraguako irakaskuntzaren errealtatea ezagutzen ari da, gero aldizkarian horren berri emateko. Somotoko "Los Quinchos" haur eskolatan egon da eta baita hango irakaslearen sindikatuko (ANDEN) zenbait ordezkariarekin ere. Managuan aurreikusita dauden bisiten artean Fernando Robleto Hezkuntza ministroarena, haur ezinduekin lan egiten duen Los Pipitos taldearena eta Asentamiento Nueva Vidako komunitatearena daude.



Ikastolen Elkarteko jardunaldiak

Aurtengo jardunaldiak **IRAKURKETA** eta **IDAZKETARI** buruz izango dira. Jardunaldiok otsailaren 14, 15 eta 16an Gasteizko Europa Jauregian burutuko dira.

Beteen artean hizlari hauek hartuko dute parte: Itziar Elorza, Maite Saenz, Eduard Vallés, Mikel Prieto, Ana Teberosky, Lourdes Taboada, Nerea Alzola, Jacques Fijalkow eta Santiago Molina.

Bestalde, Lazkaoko San Benito ikastolako eta Urretxu-Zumarraga ikastolako irakasleak euren esperientziak aurkeztuko dituzte.

Mondragon Unibertsitateko Irakasle Eskolako Jardunaldi Pedagogikoak

Eskoriatzan kokatuta dagoen Mondragon Unibertsitateko Irakasle Eskolak aurten bere 25. urteurrena ospatuko du. Horretarako, urtean zehar hainbat ekimen antolatu ditu. Horien artean, martxoaren 29 eta 30ean burutuko diren Jardunaldi Pedagogikoak. **Mundu eleanitza** eta **Hezkuntzaren funtzio soziala** gaiak landuko dira, bakoitza egun banatan izango delarik. Oraindik egitarau osoa zehaztu gabe baldin bada egoera, hona hemen aurrerapena:

Martxoak 29

- Jardunaldien sarrera orokorra
- **Mundu eleanitza**. Hizlariak:
 - Meritxell Massoni (Andorrako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bateko zuzendaria)
 - Esther Vilarrubla (Andorrako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bateko zuzendaria)
 - Rosa M^a Palau eta Teresa Serra (Bartzelonako CEIP-Villa Olimpica ikastetxeko irakasleak).
 - Rosa M^a Arano eta Elena Berazadi. (Txingudiko ikastolako irakasleak-Irun).
 - Monika Vazquez. Bilboko Unesco Eus-

kal Etxea.

- Piluca Labayen. Nafarroko Euskara Aholkularia.
- Piero Floris. Valle D'Aosta
- Felix Martí. Kataluniako Unesco Etxeko lehendakaria. Munduko Hizkuntzei buruzko Unesco Txostenaren zuzendaria.
- **Mahai ingurua**: Partaideak: Felix Martí, Mikel Zalvide eta Jasone Cenoz

Martxoak 30

- **Hezkuntzaren funtzio soziala**. Hizlariak:
 - José María MARDONES (Centro Superior de Investigaciones Científicas)
 - Ramón FLECHA (CREA - Universitat de Barcelona)
 - Cristina GARRE (Bilboko Artatse Eskola)
 - Berta MARCO (IEPS - Madrid)

Informazio gehiagorako:

Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Dorleta auzoa z/g - 20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 41 57 - Faxa: 943 71 40 32
e-maila:
idazkaritza_akademikoa@huhezi.edu

Desberdintasunak gainditzeko hezkuntzari buruzko jardunaldiak

CEI-IDCK eta Bilboko Irakasle Eskolako talde batek antolatuta, "Desberdintasunak gainditzeko hezkuntzari buruzko jardunaldiak" burutuko dira otsailaren 19 eta 20an Bilboko Bidebarrietako liburutegian.

Otsailak 19

- 9:00-9:30 Material banaketa eta kreditazioa.
- 9:30-10:00 Jardunaldien aurkezpen ofiziala.
- 10:00-11:30 Berdintasunaren heziketa informazioaren gizaratean. Ramón Flecha (Bartzelonako Unibertsitatea).
- 12:00-13:30 EEBBtako esperientziak: Hezkuntza garapenerako egitamuak, Guz-tiontzako arrakasta eta Eskola bizkortzaileak. Jesus Gómez (Bartzelonako Unibertsitatea).
- 15:30-16:45 Ikaskuntza Komunitateak. Proiektuaren aurkezpena. M^a Luisa Jaussi (CEI).
- 17:00-18:30 Ikaskuntza Komunitateen esperientziak. Mahai ingurua: Ruperto Medina LHI, Karmengo Ama LHI, Artatse LHI, Ramón Bajo LHI eta Lekeitio LHI.

Otsailak 20

- 9:00-10:30 Elkarrekin bizitzen ikasten. Ignasi Vila (Gironako Unibertsitatea).
 - 10:30- 11:00 Arabiarrek komunitatean sartzeko proposamen berriak. Lena Botton (CREA).
 - 12:00-13:00 Hezkuntza aldaketa eta ijito-en herria. Manuel Bizarraga (Kale dor kalikó).
 - 13:00-13:30 Esperientzia: gizarte eta hezkuntza ikasketaren laguntza (Gugaz Aurre-ra).
 - 15:30-16:45 Ikaskuntza dialogikoa. Josebe Alonso (EHU) eta Miguel Loza (Gasteizko PAT).
 - 17:00-18:00 Irakurketa. Bernardo Atxaga
 - 18:00-18:30 Jardunaldien amaiera.
- Informazio gehiagorako:**
- Bilboko Irakasle Eskola:
Tel.: 94 601 45 69/70/79 (11:00- 13:30, astelehenetan izan ezik)
CEI-IDC:
Tel.: 94 476 06 04 (14:30-17:00 ostiraletan izan ezik)

Ovide-Jean Decroly

Decroly "Eskola Berri"ko mugimenduaren abiarazle eta ordezkari garrantzitsuenetariko bat dugu. Haren ekarpenik nagusia gaur egungo eskoletan indarrean dauden oinarri teorikoak eta praktika pedagogikoak sartzean datza. Decroly-ren oinarritzko ideia "Bizitzarako eta Bizitzaren bidezko Hezkuntza" da, haurraren beharrak kontuan hartzen dituen hezkuntza aktibo eta funtzional baten aldeko apurketa, hain zuzen.

Biografiaren hairbat dhar

Ovide-Jean Decroly, 1871n Renai-xen (Belgika) jaio eta 1932. urtean Bruselan hil zen sendagile, psikologo eta hezitzaile belgikarra, hezkuntza munduan klasiko bihurtu da.

Ganteko Unibertsitatean Medikuntza ikasketak egin zituen, 1896. urtean doktoregoko ezohiko saria eskuratu zuelarik. Geroago, Berlinen eta Parisen garuneko patologiar buruzko ikasketak eta ikerketak burutu zituen.

Bruselara itzulirik Glorieux Dokto-rearen poliklinika laguntzaile izendatu zuten. Lanpostu honetan bizi izandako esperientziek haur anormal eta atzeratuentzako hezkuntza erakunde bat sortzeko ondorioerata eraman zuten.

Hori dela eta, 1901ean "Hezkuntza Bereziko Institutua" sortu zuen. Bruselan kokaturiko eraikuntza honetan Decrolyk haur "irregularra" hezi eta aztertzen zuten, iraultza pedagogikoa hasteko asmoa zuelarik.

Maria Lourdes Aparicio

NUP. Psikologia eta Pedagogia departamentua.

Didaktika eta Eskola Antolakuntzako irakaslea



Haur mota horrekin izandako hezkuntza arrakasta dela-eta, eskarmentu horretan oinarritu zen ikasle arruntei zuzenduriko "L'Ermitage Eskola" sortzeko. Ikastetxe hori, "bizitzarako eta bizitzaren bidezko eskola" lemapean, Lehen Hezkuntza eskainiz 6 eta 12 urte bitarteko ikasleen heziketaz arduratu zen.

Nahiz eta I. Munduko Gerratearen ondorioz hezkuntza zerbitzu hori etenda gelditu, gudak sorturiko umezurtzei babesa eskaintzen jarraitu zuen Decrolyk. Horrela, 1905. urtean Bruselan bertan Umezurtzen Etxea ireki zuen, bertako lehendakari izan zelarik.

Urtebete beranduago Brabanteko Haur Elbarrientzako Institutuko zuzendari izendatu zuten, eta Britainia Handiko Justizia Ministerioaren eskutik Haurtzaro Delitugilerako aztertzaile bihurtu zen 1919an.

Nazioarteko gatazka bukatuta, Decrolyk sortutako metodo pedagogikoa bere estatu osoan zehar hedatu zen, eta Belgikako eskola publikoetan ofizialtasunez ezartzera iritsi zen.

Zeregin praktikoetan ez ezik unibertsitatean ere ikerketa eta irakas lanetan aritu zen. Hezkuntza Berezitari, Haurraren Psikologiar eta Hezkuntza eta Osasun Mediku-Psikologikoari buruzko gaiak irakatsi zituen.

1922. urtean EEBBetara joan eta Ameriketako mugimendu berritatzaileraren aitzindariekin harremanetan jarri zen, besteak beste, Deweyrekin eta Kilpatrickekin.

Garai hartan test psikologikoen erakuntza arloan lan egiten zuten psikologoekin ere elkarlanean aritu zen, batez ere, Yerkesekin, Termanekin, Otisekin eta Kelleyrekin eta beste batzuekin.

Hego Ameriketara eta Espainian zehar bere ikusmolde berriak ezagutarazten ibili zen, bere metodoak zabal-kunde handia eta jarraitzaile asko lortu zituelarik.

Berak idatzitako lana eskusiboki artikulatu barreiatuetan datzanez gero, bere ideien eta metodoaren zabal-kunde bere laguntzaileei sor diegu: H. Hamaiderrri, G. Boomi, L. Dalhemi, Deschamps eta E. Monchampi, hain zuzen; haiek izan baitira Decrolyk idatzitako testu eta artikuluen bilduma osatu eta liburu bihurturik argitaratzea posible egin dutenak.

Hezkuntza eta eskolari buruzko kontzeptualizazioa

Decrolyren ustez, irakaskuntzaren jasotzailea den **ikaslea hezkuntza-aren ardatza** da eta ideia horrek bi aldagai ikastera eramaten du. Alde bategatik, eskola eta bizitzaren arteko harremanak, eta beste aldetik, ikaslea hezkuntza behar anitz, berezi, indibidual eta bakarrak dituena dela.

Decrolyren eskoletako **hezkuntza xedea haurra bizitzarako prestatzea da, bere bizitza indibidualerako nahiz bere gizarte bizitzarako.**

Decrolyren pedagogiaren ekarpenik garrantzitsuenak "**ideia elkartuak**" eta "**interesguneak**" dira. Lehenengoei **programa** eta bigarrenei **metodoa** deitzen die.

Eskola tradizionalaren programak arbuaitzen ditu, haurren interesak eta pentsamenduaren prozesua kontuan hartzen ez dituztelako eta irakaskuntzaren baliabide bakarra irakaslearen ahozko adierazpena delako.

Haurren interes psikobiologikoa da arreta mantendu eta zuzendu eta adimenaren bereganatzea erregulatzen duena. Bere ustez, estatu guztietako haur guztien berezko interesak eskolatik kanpo daude, natura gizakien benetako hezitzailea delarik. Gizaki orok behar duena da gizartean bere aldaketei egokitu eta aurre egiteko modua emango dion ezagutza mota eskuratzeta.

Horregatik, bere "ideia elkartu"en programak **bi helburu nagusi** ditu:

- **Norbere burua edo berezko pertsonalitatea ezagutzea, eta ondorioz, bere beharrak, igurikapenak, xedeak eta idealak.**

- **Natura, hots, bizi eta menpekia den ingurunea ezagutzea, bertan parte hartu behar baitu bere igurikapenak, beharra, xedeak eta idealak errealitate bihurtzeko.**

Edukiei dagokienez, ezagutzaren pilaketa ez du puntu garrantzitsuenetzat jotzen, haiekiko interesa eta bereganatzeko trebeziak baizik. **Gutxieneko ezagutza intelektuala** momentuko eta etorkizuneko haurren beharrak asetzeko beharrezkotzat jotzen diren edukiek osatzen dute. Ondorioz, haurren oinarritzko beharretan funtsatutako programa -ideia elkartuak, eta gaur egungo terminolo-

gian edukien aukeraketa bezala ezagutzen duguna- diseinatzen du:

- Elikatze premia
- Naturaren ustegabeen aurkako borrokaren beharra
- Arriskuei eta etsaiei aurre egiteko beharra
- Lan egiteko beharra -hori sorrarazi egin behar da, aurreko premiak asetzeko nahitaezkoa baita.

Haurren behar horiek asetu ahal izateko ingurunearen aldagaiak lan-tzea proposatzen du:

- Ingurune naturala: 1) bizirik dagoena: abereak eta landareak
- 2) hila dagoena: mineralak, eguzkia eta astroak
- Giza ingurunea: 3) familia, eskola eta gizartea

Bereizten ditu: a) Inguruneak giza-kiarengan duen eragin positiboa eta negatiboa

b) Gizakiak ingurunean duen eragina bere beharrak asetzeko.

Kulturaren programarekin batera **tekniken lorpena** -gaur egun prozedurazko edukiak deritzana- proposatzen du:

- Kalkulua
- Idazketa
- Irakurketa
- Eskulanak
- Marrazkia



Edukien denboralizazio eta sekuentziaketari dagokienez, "Idea elkartu" en programa hau **3-4 urteko ikasleekin lantzen has daiteke**.

Eduki horien irakaskuntza-ikas-kuntza **ikasturtero** errepikatzen da, gero eta modu zabalagoan eta zailtasun maila gero eta altuagoa izanik irakasgai ezberdinetan. Hau da, **ardatz nagusiak mantenduz, espiral an-tera garatzen joaten dira**.

Edukiak lantzeko moduari dagokionez, Decrolyk "ideia elkartu" en programaren interpretazioa baimentzen duen **ariketa sail bat** aurkezten du. Ariketa hauek ordena psikologiko batean kokatzen dira eta adimenaren prozesuaren ekintza ziklo bat osatzen dute, hurrengo hiru ariketa mota ezberdintzen direlarik:

- Behaketa ariketak: haurrak objektuekin, izakiekin, gertaerekin eta ekin-tzekin harreman zuzenean jartzeko helburua duten ariketak barneratzen ditu. Ukimenezko materialak eta zentzumenentzat eskuragarriak direnak erabiltzen dira.

- Elkarketa ariketak: errealitatearekin harreman zuzena ezinezkoa edo beharrezkoa ez den kasuetan lantzen dira. Material abstraktuagoak erabiltzen dira, hala nola, oroimenak, irudiak, testuak, e.a. ideia orokorretara iristeko asmoz.

- Adierazpen ariketak: norberaren pentsamendua beste gizakiekin konpartitzea baimentzen duten ariketak dira. Adierazpen zehatzetan marrazkia, modelaketa, eskulanak eta material ezberdinez egindako eraikuntzak barneratzen dira. Adierazpen abstraktuei dagokienez, irakurketa, elkarrizketa, idazmena eta kalkulua ditugu.

Eskolako lana "**interesgune**" en **metodoaren** bitartez garatzea proposatzen du, hau baita behaketa, elkarke-ta eta adierazpena estimulatzeko ditue-na, kontuan izanik ikuspuntu psikologikotik edozein gertaera hiru ikuspegi ezberdinen bidez azter daitekeela.

Aurreko guztia **printzipio orohartzailleak** blaitzea planteatzen du. Izan ere, Decrolyk estrategia orohartzaillei egiten die erreferentzia. Meto-

do hau haurren somaketaren eta pentsamenduaren prozesuen kontzeptualizazio gestaltikoan oinarritzen da, zeinak gizakia bere osotasunean hartzen duen.

Hala ere, irakurketaren irakaskuntzaren kasuan baino ez zuen printzipio honen aplikazio koherente eta zehaztua adierazi: esaldia hitza baino konkretuagoa da eta azken hau silaba baino abstraktuagoa. Beraz, ikaskuntza ordena esaldia-hitza-silaba-hizkia izanen da.


Decrolyk defendaturiko **irakurketa-idazketa metodoaren** aurrekiak Itardek eta Bournevillek haur "anormal" entzako asmatutako eta geroago ikasle guztiekin aplikatutako metodoan aurki ditzakegu.

Metodo ideo-bisual, ideografiko edo begi naturala haurren ezagutza psikologikoan oinarritzen da, hurrengo ezaugarri nagusiak dituelarik:

- Irakurketaren begi metodoa da. Ikusmena haurren bizitzaren hasieratik gehien garatu den zentzumena da eta entzumenaren aurrekoa. Irakurmenak begi izaera du. Entzumenak, berriz, zeharkako zentzumena da, landutako balioa izateko ahozko hizkuntzatik igaro behar baitu. Ikusmenak balio sintetiko edo orohartzaillea duenez, hizkiz hiki joan gabe irakurketa arrunt-a baimendu du.

- Esaldi eta hitz osoaren erabilera. Ikaskuntzak sinpletik konposatura eta konkretutik abstrakturako printzipioei jarraitzen die. Sinpletzat hartuko dugu esaldi konkretua, haurrari esanahi erreal eta ezaguna adierazten diona -esaldia eta hitza-. Silaba eta hizkia, berriz, abstraktuak dira, analisi prozesu baten emaitza baitira. Horregatik, haurren komunikazioa esaldi eta ideien bitartez gauzatzen da, eta ez silaba edota hizkien bidez.

- Interesak eta jolasak lagundutako errepikapena. Decrolyren irakurketa metodoa begi oroimenaren trebakuntzan oinarritzen da, ikaslearen begi irudien gordetze ordena hurrengo delarik: irudiak-esaldiak-hitzak-hizkiak. Ondorioz, irakurketaren irakaskun-



tzaren metodoak etapa hauei jarraitzen die.

- Irakurketa interesgunearen programan oinarrituta dago eta irakaskuntza orohartzaileraren bidez ikasitakoari aplikatzen zaio.

- Begi oroimenaren lanketa. Idazketa ikaskuntzari dagokionez, lehenengo urratsa haurren berezko marrazkia eta modelaketa dira -hasieran hizkia itxuragabekoa izaten den arren, pixkanaka egoki bihurtzen joaten da-. Ondoren, arbelean idatzitako esaldiak begi-bistan gero eta epe laburragoetan utziz, ikasleak buruz kopiatu behar du, jarduera mota honetako helburua begi oroimena lantzea delarik.

Printzipio orohartzaillearekin batera, Decrolyk **hezkuntza jolasari** garrantzi handia ematen dio. Jolasak ikaslearen berezko ekintzaren eta lanaren arteko zubia izateaz gain, lan jarduerarako ere prestatzen du. Horregatik, eta material egokia erabiltzen bada, balio handiko baliabide hezgarria bihur daiteke.

Decrolyk "hezkuntza jolasak" deritzanak eraiki zituen, zeinen hasierako helburua Hezkuntza Bereziko arloan

aplikatzea izanik, Haur Hezkuntzan arakasta handiz erabiltzen hasi ziren. Jolasak hiru multzotan sailkatu zituen:

- Zentzumenezko sumaketa eta gaitasun motorea garatzera bideratutakoak

- Ideia orokorren edo elkarte inductibo eta deductiboen jolasak

- Propioki didaktikoak: aritmetika eta irakurketaren hasierakoak, hizkuntza eta gramatikaren ulermenezkoak eta denbora kontzeptuari dagozkionak.

Eskolaren antolaketari dagokionez, hurrengoak dira haren postuluak:

- **Eskolak naturarekin harreman zuzena** izango duen ingurune batean kokaturik egon behar du.

- **Aretoek tailerren eta laborategien antza** izango dute.

- **Eskolak adin eta sexu ezberdinetako ikasle kopuru txikia** izango du.

- **Ikastaldea ahal den homogeneoa** izango da eta gehienez 20-25 ikasle osatuko dute

- Ikasle atzeratuen kasuan ikastaldea 10-15 lagunek osatuko dute.

- **Diziplina haurraren aktibitate eta lanaren ondorio** da, eta ez geldotasunaren, pasibitatearen eta obediencia emaitza.

- Saria eta zigorrak ekidin egin behar dira

- **Irakaslea aktiboa, adimentsua, sormen handikoa, eta animalia, landare eta haurraren behaketarako prestua izango da. Haurra maite behar du.**

Ebaluaketa dokumentuei dago kienez, Decrolyren eskoletan buletinak eta notak **txostenek** ordezkatzen dituzte, zeinetan ikaslearen egoera psikologikoari buruzko azterketa indibidual, zehatz eta osoa agertzen den.

Gaur egungo eskoletan isla

Decrolyren ikusmolde pedagogikoa eta berak proposaturiko neurriak, erabat berriak eta iraultzaileak izan zirenak bere garaian, Haur Hezkuntzan aritzen diren profesional eta adituek o-

so arruntzat hartzen dituzte. Horrek esan nahi du gaur egun Decrolyren pentsamenduak **Haur Hezkuntza osoa blaitzen duela** eta oso zaila gertatzen zaigula haren ekarpenik gabeko etapa honen hezkuntza irudikatzea. Are gehiago, haren **metodoaren printzipio nagusiak Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ere aplikatzen dira.**

Hala ere, badago hark onartutako ideia bat eta gaur egun baztertuta duguna –teorikoki behintzat–: haur "hezgarri" eta "hezgaitz" en arteko bereizketa egitea erakunde ezberdinetan bananduz, hain zuzen. Ez zen gizartearen a-

Bibliografia

Decrolyren lanak:

- DECROLY, O. (1903). "Paralysie pseudobulbaire chez l'enfant", in Polyclinique, octubre.

- DECROLY, O. (1922). Hacia la escuela renovada. Una primera etapa. L.g.: La Lectura.

- DECROLY, O. (1929). Problemas de psicología y pedagogía. Madrid: Beltrán.

- DECROLY, O. (1934). El niño anormal. Madrid: Beltrán.

- DECROLY, O. (1934). Psicología aplicada a la educación. Madrid: Beltrán.

- DECROLY, O. (1935). Estudios de psicogénesis. Madrid: Beltrán.

- DECROLY, O. (1961). Introducción al método Decroly. Buenos Aires: Losada.

- DECROLY, O. (1968). "La función de globalización y su importancia", in LUZURIAGA. Ideas pedagógicas del Siglo XX. Buenos Aires: Losada.

- DECROLY, O. (1977). "La función de globalización y la enseñanza", in Madrisas (Haur Hezkuntzari buruzko aldizkaria), 35. zenbakia.

- DECROLY, O. eta BOON, G. (1965). Iniciación general al método Decroly. Buenos Aires: Losada.

- DECROLY, O. eta BOON, G. (1921). Vers l'école renouée. Bruxelles: Office de publicité.

paratuen izaera hautakorraz ezta eskolak ikasle talde homogeenetan banatzeak sortzen dituen ondorio sozialak ohartu.

Bestalde, Decrolyrentzat **hezkuntza orokorra eta berezia bereiztezinak dira**. Arrazoia da **ez duela pedagogia orokorra eta bereziaren arteko ezberdintasunik azaltzen**, hau da, haren postulatuak ez du inplikatu haur batzuen eta besteen hezkuntzak printzipio ezberdinetan oinarritzen direnik; aitzitik, arrunta nahiz "patologikotzat" hartutako prozesu biologikoen lege bereberri jarraitzen diete.

- DECROLY eta HENROTIN (1912). "Un cas d'insuffisance motrice", in Journal de Neurologie.

- DECROLY, O. eta MONCHAMP, E. (1928). Iniciación a la actividad intelectual y motriz por los juegos educativos. Madrid: Beltrán.

- DECROLY, O. eta MONCHAMP, E. (1986). El juego educativo. Iniciación a la actividad intelectual y motriz. Madrid: Morata.

- DECROLY eta VERMEYLEN (1921). "Semeiologie de l'affectivité", in Bulletin de la Société de Médecine Mentale.

Decrolyri buruzko lanak:

- BOON, G. (1926). Aplicación del método Decroly a la enseñanza primaria y a la instrucción obligatoria. Madrid: Beltrán.

- GASTON, H. (zuzendaria) (1978). Educación nueva y mundo moderno. Barcelona: Planeta.

- HAMIDE, H. (1930). El método Decroly. Madrid: Beltrán.

- HAMIDE, H. (1922). Méthode Decroly. Paris: Delachaux et Nestlé.

- RODRÍGUEZ, F. (1925). El método Decroly. Madrid: Ikasketa Zabalkuntzarako eta Ikerketa Zientifikoetako Batzarra.

- VIOTTO, P. (1972). "Ovidio Decroly y los Centros de Interés" in Educación, (Hezkuntzari buruzko aldizkari latinoamerikarra), 91 zenbakia.